# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2015-01-09
EGUBAKOITZA
623. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM



SARE

## "ETAk erabakia hartu zuenetik espetxe politikan atzerakada gertatu da"

**Joseba Azkarraga** | Sareko kidea | 8

Urtarrilaren 23an inauguratuko dute Eskoriatzako Zaldibar antzokia | 16



Bergaran hiru gasolindegi eraikitzeko eskaerak | 5



Simon Arrieta margolari bergarararen urtea da 2015a | 12



## Zigarroa, geroago eta murritzago

Urtarrilaren 2an lau urte bete ziren Tabakoaren Aurkako Legea indarrean sartu zela | 3

**Erretzaile bat, eskuetan zigarroa duela.**

IMANOL SORIANO

# 56 lagunendako lekua izango duen aterpetxe berria, maiatzerako gertu

Arantzazu Fundazioaren babespean, Arantzazun bertan egokituko dute aterpetxea. Hain justu, Gandiaga 1 eraikinean kokatuko dute, 500 metro koadrotan. Ugarte enpresak egingo ditu lanok eta 253.000 euroko aurrekontua du. Guztira, sei logela izango ditu, 56 lagun hartzeko. | 9

## SINADURAK


**Bersiñuak** | 6
JEXUX URMENETA

6 | **Orain eta lehen, jolasten**
AITZIBER ARANBURUZABALA



**2015a, bagoaz** | 13
JOSU ELORZA

15 | **Ohartzerako**
BEÑAT ZAMALLOA



**Burujabetza behar dugu** | 17
IMA BERISTAIN

32 | **Urte berri, zaharrak berri**
AINTZANE OIARBIDE


## 'Loreak' filmak bi izendapen jaso ditu Goya sarietarako: film eta soinu banda onenarenak | 25

## Espaloia kafe antzokiak aro berriari ekingo dio domekan

Anje Duhalderen kontzertua izango da estreinakoa | 22


Anje Duhalde abeslari lapurtarra, kontzertuan. | IMANOL SORIANO


ASTEKO GAIA 3 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 9 | KIROLA 20 | KULTURA 22 | ZORION AGURRAK 26 | ZURE IRAGARKIAK 27 | TELEBISTA-IRRATIA 28 | EZKONTZAK 29 | ESKELAK 29 | NON-ZER 30


puntua
ASTEKARI BERRIA
Urtarrilaren 16tik aurrera,
egubakoitzeko Goienarekin batera,
Goiena Klubeko bazkideendako.
Gai guztiak, beste ikuspuntu batetik
puntua
Goiena Klubeko bazkide ez bazara edo
norbaiti urte osorako oparia egin nahi badiozu:
943 25 05 05 / kluba@goiena.eus

# Iritzi kontrajarriak ostalarien artean, lau urteren ondoren

- 2011n sartu zen indarrean Tabakoaren Aurkako Legea ostalaritzan
- Tabernetan baino, jatetxeetan nabaritu dituzte galera handiagoak

IRATI GOITIA | ARRASATE

Urtarrilaren 2an bete ziren lau urte Tabakoaren Aurkako Legea martxan jarri zela. Hasiera batean, zalaparta handia eragin zuen legeak, aurkako eta kontrako iritziak izan ziren herritarren artean, eta baita ostalarien artean ere. Lau urte geroago, jendea ohitu egin da kerik gabe egotera.

### Arazorik ez aplikazioan

Legearen aplikazioa hasieratik erraza izan zela adierazi dute tabernariek, ez dela inolako arazorik izan. Oñatiko Galicia tabernako Oskar Cambesesek dio errespetua izan dela nagusi: "Ez dut lau urtean inolako arazorik izan. Jendeak hasieratik bete zuen". Herri bereko Zurrust tabernako Amaia Iurrebaso zerbitzaria bat dator: "Inork ez digu ezer leporatu, hasieratik onartu zuten erretzaileek. Gainera, gu geu ere kalera irteten gara erretzera eta hori eredu da eurentzat". Bergarako Euxebio II tabernako Amaia Txintxurretak esan du ez dela ezer nabarmenik pasa : "Hasiera batean, izan genuen bateren batekin tirabiraren bat, baina edanda zegoelako. Orokorrean, ondo".

### Denetariko balorazioak

Ostalaritzan izan duen eraginari dagokionez, ezberdina da jatetxea edo taberna izan. "Asko igarri dugu. Guk jatetxea dugu eta jendeak jada ez du postrerik hartzen. Lehen, kafea, kopa eta postrea hartzen zituzten eta tertulian izaten ziren lasai. Orain ez", dio Iurrebasok. Bergarako Txintxurretak, berriz, balorazio positiboa egin du: "Ni oso pozik nago. Taberna pintxoz beteta dut, eta eskertzen da. Izan ere, lehen, jendeak pintxoetatik oso gertu erretzen zuen, eta beldurrez izaten ginen zerbait esateko ere". Bestalde, tabernan ez du beherakadarik nabarmendu: "Kanpoan dute erretzaileek tokia eta ongi egokitu dira horretara. Gehien igarri dena izan da joko-makinan". Cambesesek ez ditu debekuak gogoko, baina uste du "kontrolatu" egin behar zela, eta, garbitasunari dagokionez, ondo baloratu du legea: "Orain, ez lurrean ezta mahaietan ere, ez da zigarro-puntarik izaten. Niri orain aukeran emango balidate erretzaileen edo ez erretzaileen taberna jartzea, kerik gabekoa aukeratuko nuke. Ni oso gustura nago horrela, lehen baino hobeto". Bestalde, euren osasunerako onuragarria izan dela gaineratu du Cambesesek: "Ni erretzailea naiz, eta, egia esan, izugarrizko mesedea egin didate. Nik lehen hemen barruan erretzen nuen pila bat. Orain, ezin dudanez, erdia baino gutxiago erretzen dut". Zurrusteko Iurrebasok hori ikusten du alde positibo bakarra: "Argi dago guztiontzako onuragarria izan dela. Lehen, gortinak sei hilean behin garbitu behar izaten genituen izaten zuten nikotinarengatik. Hori da legeak duen alde positiboa, baina lanik gabe gelditzen banaiz...".



Terraza batean erretzen. | IRATI GOITIA

**DATUA**

**93**

TERRAZA

Arrasaten ostalariek kanpoaldean terraza jartzeko 52 eskaera egin zituzten 2011n; 2012an, 108. Aurten, 93k egin dute.



GOIENA

**AITOR MONTES**
ARAMAIOKO MEDIKUA

## "Oso ohikoa zen bronkiolitisak edo asmak jotako umeak larrialdietan artatzea"

**Lau urte dira Tabakoaren Legea indarrean sartu zela. Igarri duzue hobekuntzarik jendearen osasunean?**
Bai, igarri da legea atera zenetik, batez ere, haurren artean, pediatria arloan: urgentzietara joaten diren ume asmatikoen zenbatekoa asko jaitsi da. Lehen, oso ohikoa zen bronkiolitisak edo asmak jotako umeak larrialdietan artatzea. Ospitaleetako larrialdietan asko nabaritu da beherakada. Beraz, osasunaren aldetik igarri da hobekuntza; bai, behintzat, haurren kasuan.

**Helduen kasuan nabaritu da hobekuntzarik osasunean?**
Ez dakit ikerketa zehatzik egin den horren inguruan, ez dut daturik. Beraz, ezin dut zehaztu helduen kasuan hobekuntzarik izan den edo ez.

**Zuek, mediku ikuspuntutik, pozik zaudete legearekin?**
Denok gaude ados. Egia da hainbat herritar kexatuko direla; izan ere, tabernetan izaten den jendea kanpora irteten da eta kalean zarata sortzen dute. Hori ez da onargarria, akaso. Baina osasun aldetik neurri mugatzaile hauek asko eskertzen dira eta bide hori jarraitu behar dugu. Izan ere, erretzea ez da kaltegarria norberarendako bakarrik, baita inguruan dagoenarendako ere.



**LURDES JIMENEZ**
ARRASATE

"Legea indarrean sartu baino pixka bat lehentxeago utzi nion erretzeari nik eta dezente lagundu zidan horrek. Beraz, komenigarri izan zait".



**JOXEAN APARIZIO**
ANOETA

"Ni erretzailea naiz eta errespetatzen dut. Orokorrean, egunez ondo betetzen dela esango nuke; again, gauetan ez horrenbeste".



**LOREA ARANBURU**
ARRASATE

"Oso ondo iruditu zitzaidan legea ezartzea. Hala ere, gazteen tabernetan ez da betetzen, eta hori kontrolatu egin beharko litzateke".



**MIRARI GARITAONANDIA**
ARRASATE

"Hainbat gauza aldatu dira. Gure umeak txikiak zirenean, tabernan beharrean, kanpoan izaten ginen, erre egiten zelako; orain, barruan egoten dira".



**AGUSTIN PEREZ**
ARRASATE

"Niri, egia esan, berdin dit. Lehen ere gustura izaten nintzen tabernetan. Hala ere, Gobernuak erretzea debekatzen du, baina landatzea ez...".






Herritar bat Bergarako Irala kaleko Joka saltokiko erakusleihoari begira. | UBANE MADERA

# %30eko prezio jaitsierarekin hasita, beherapenik "onenak"

Beherapenez gainera, 'outlet' azokak edo erremate azokak ere egingo dituzte

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

Neguko kanpaina iazkoaren antzeko datuekin agurtu ostean (akaso Bergaran okerrago, Candy-Hooverren itxierak eraginda), Debagoieneko dendariak orain neguko beherapenei begira daude, "zerbait mugituko" denaren esperantzaz.

%30eko merkealdia aukeratu dute gehienek abiapuntu modura, eta kontsumoaren zenbatekoak markatuta, goizago edo beranduago, baina datozen asteotan hasiko dira %40-%50eko beherapenak iragartzen, eta aurrera egin ahala, baita prezio jaitsierok handitzen ere, ahal dutenek, behintzat.

### Genero asko

Hori bai, eskualdeko dendari elkarte guztiak ados daude esatean negukoak direla urteko beherapenik "onenak". Bi arrazoirengatik: negua hasi berritan, erraza goa da sasoiko jantziak erostera erakartzera bezeroak.

Bigarren arrazoia, berriz, neguko jantzien izaerak berak zehazten du: udakoak baino garestiagoak dira. "Akaso lehen ez horrenbeste, baina gaur egun jendeak luzaroago erabiltzen ditu neguko jantziak, eta gehiago aprobetxatzen dira beherapenak", kontatu du Juan Karlos Aranburuk, Oñatiko Txanda elkarteko ordezkariak.

"Gure ustez interesgarriak izan daitezke erosleendako. Etorkizuna hobexeago etorriko dela uste dugu, eta horri esker gu ere eskuzabalagoak izan gara saltokietako stock-a eskatzerako orduan. Ondorioz, genero nahikoa dugu", gehitu du Arrasateko Ibai Arte elkarteko ordezkari Angel Alonsok.

### Bertan ere aukera polita

Osterantzean, ohiko mezua helarazi gura diete merkatariek erosleei: "Etor daitezela lehenengo guregana. Beti gaude hemen, gertukoenak gu gara, eta kanpora joan aurretik, konpromiso barik, etor daitezela gure eskaintza ikustera", dio Idoia Elexpuruk, Aretxabaletako Aretxarte merkatari elkarteko ordezkariak. Eta Arrasatekoak zera gehitu du: "Dendariok bat gatoz zera esaten dugunean: "Bailaran ez dagoena ez da existitzen edo ez dago halakorik".

Izan ere, merkataritza zentro handiak dira tokikoei kaltea eragiten segitzen dietenak. Horiekin batera, baina, geroago eta indar handiagoa hartzen dabiltza Interneteko eskaintzek, eta krisiak eraginda, besteak beste, gazte asko (gehien kontsumitu izan dutenak) langabezian egoteak.

### Azoka bereziak

Beherapenekin batera, sasoi honetan ohiko bilakatu diren azoka bereziak egiteko asmoa dutela ere esan dute merkatariek: Merkemerkaua Arrasaten, Ixadebalde Aretxabaletan, *outlet*-a Oñatin, eta, besteak beste, eskaintza berezien asteburua Bergaran.




DEBAGOIENEKO EZKER ABERTZALEA

## Intxortako igoera, urteko lehen domekan

Debagoieneko ezker abertzaleak antolatuta, "Euskal Herriaren alde bizitza eman duten gudariak" ekarri zituzten gogora urtarrileko lehenengo domekan. Urtero moduan, Intxorta tontorrean egin zuten lehen ekitaldia. Tontorrean elkartu eta hamaiketakoa egin ostean, talde argazki atera zuten parte-hartzaileek. Pankartaren leloa, aurten, hau izan da: *Ez dugu aske izaterik haiek gabe.*

# Astebete barru, 'Puntua' aldizkaria ere kalean

Goiena Klubeko kideek eskuratuko dute, egubakoitzero, GOIENA paperekoarekin batera

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

Datorren astean argitaratuko da *Puntua*, Goiena Komunikazio taldearen aldizkari berria. Egubakoitzetan argitaratuko da, astero, GOIENA paperekoarekin bater a, baina Goiena Klubeko kideen artean bakarrik. Hau da, urtean 55 euroko bazkidetza kuota ordaintzen dutenek jasoko dute 48 orriko koloretako errebista. Gainera, kuota horretatik, Goienak euro bat bideratuko du elkartasun proiektuetarako.

### Beste hainbat abantaila

Bazkidetza kuotaren truke 2015ean etxean jasoko dute Goiena Klubeko kideek, astero, 44 astean, aldizkaria etxeko postontzian. Eta, horretaz gain, beste hainbat abantailaz baliatuko dira, eskualdeko euskarazko multimedia komunikazio proiektua babesteaz gain: zozketa berezietan parte hartzeko aukera, *Puntua* aldizkaria *Goiena.eus*-en irakurtzeko aukera…

### Optimizazioa

*Puntua* argitaratzeak ekarriko du aurrerantzean astelehenetan ez argitaratzea Goiena paperik. "Goienaren ekoizpena optimizatzea ekarriko du horrek eta balioan jartzea beste era bateko informazioa, Goienaren hedabideak osatuz", dio Eneko Azkaratek, Goienaren edukien zuzendariak. "Esaterako, gaur egun *Goiena.eus* ez da sorreran zena, eta, oro har, Internetek, paperaren kaltetan, hartu duen indarraren erakusle, geroago eta gehiago dira Goienaren webgunearen bisitariak, eta sarriago berritzen da, bideo eta guzti".

Hortaz, *Goiena.eus*-ek, egubakoitzeko GOIENA paperak eta Goiena telebistak gaurkotasuna, agenda, informazioa, unean unekoa… landuko dute, batik bat. Eta *Puntua*-k, berriz, bestelako generoak: erreportajeak, eta abar; eta gaiak, "beste ikuspuntu batetik". Gai ezohikoago eta landuagoak.

### Aitor Luna eta Jon Gonzalez

*Puntua*-k izango ditu, besteak beste, tarte hauek: munduko berriemaileen informazioa, iritzia, moda, motorra, osasuna, zaletasunei edo ongizateari lotutako kirola, kultura, komunikazioa… Eta lehen zenbakiko gai batzuk honako hauek izango dira: Aitor Luna eta Jon Gonzalez anaia bergarar aktoreei eginiko elkarrizketa; langabezian dauden gazte unibertsitarioen gaineko erreportajea; kick boxing kirola; umeen loditasuna; Maria Lasa tatuaje egileari eginiko elkarrizketa, edota Markeliñe antzerki taldearen azken lana.

## Apotzaga-Etxebarriko Salluente baserrian gertatutakoa ikertzen dihardu Ertzaintzak

**LARRAITZ ZEBERIO** | ARETXABALETA

Autopsia eta auzitegiko medikuaren txostena erabakigarriak izango dira egiazten iluntzean Aretxabaletako Apotzaga-Etxebarriko Salluente baserriaren alboko belardian hilda azaldu zen 60 urteko gizonezkoari gertatutakoa argitzeko.

Ertzaintzaren lehen ikerketen arabera, biktima etxeko galdara edo tximinia pizten ari zela arropak su hartu eta ezin itzalita kiskalita hil zen. Ezbeharra noiz gertatu den ere autopsiak argituko du; edozein modutan, biktimaren gorpua azaldu zen abisua eguazteneko 18:20an jaso zuten.

### Heriotza baieztatu bakarrik

Abisua eman eta bertaratutako sendagileek ezer gutxi egin ahal izan zuten. Auzitegiko medikuak heriotza baieztatu besterik ezin izan zuen egin.

## Azaroan baino 67 lagun gehiago enplegatuta, abenduan

Langabezia tasak hobera egin du abenduan ibarrean ere, joera orokorrarekin bat eginda. Guztira, 3.698 langabe kontabilizatu zituzten. Hoberako joera hori izan zen Aretxabaletan, Arrasaten, Elgetan, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan; langabeziak gora egin zuen, aldiz, Antzuolan, Bergaran eta Oñatin.

## Eguaztenean askatu dute Xabier Arregi 'Txapi' bergararra

Almeriako kartzelatik goizean irten zen Xabier Arregi osintxuarra, eta egunean bertan egin zioten harrera herrikideek Bergaran. 2007ko abenduan atxilotu zuten,18/98 sumarioan auzipetuta, eta zazpi urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri zioten. Sumario berarengatik etxean da, eskumuturrekoarekin zigortuta, Jose Luis Elkoro.

# Bergaran hiru gasolindegi zabaltzeko baimen eskaerak onartu egin dituzte

- Beasain-Durango korridorearen irteera ingururako dira eskaera bi
- AP-1 autobidearen irteera ere aprobetxatuko dute; adibidez, Eroskik

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Baldintza guztiak beteta, Bergarako Udalak onartu egin ditu udalerriko lurzoruan hiru gasolina-zerbitzugune eraikitzeko baimen eskaerak.

Bata Eroskik eskatu du, Leizeagarako (IATren parerako). Hain justu ere, han duten aparkalekuaren zati batean gasolindegia eraikitzeko baimena tramitatu dute, errepiderako irteera propio eta guzti.

Bigarren eskaera, berriz, AP-1 autobideko Labegaraietako sarrera parean dagoen Mostei Tailerrak aurkeztu du. Kasu horretan, gainera, Mosteiren pabiloiaren ondoan obrak hasi dituztela agerikoa da.

Eta azken baimen eskaera Bergarako bi partikularrek egin dute. Kasu horretan, Bonbulu ingururako baimena da eskatu eta onartu zaiena; hau da, Bonbuluko okindegiarena zen oruberako, Aseginolaza kontzesionarioaren ingururako. Hantxe egokituko du Diputazioak Bergararako sarrera ahalbidetzeko biribilgunea.



Leizeagako Eroskiri onartu diote baimen eskaeretako bat, errepiderako irteera propio eta guzti. | UBANE MADERA

**Udaren bueltan**

Esandako moduan, Bergarako Udalak onartu egin ditu hiru baimenok. Edozelan ere, horrek ez du esan gura proiektu guztiak egingo direnik. Baina hala izaten bada, aurreikuspena da uda ingururako edo uda osterako zabalik izango direla hiru gasolindegi berriok eskualdean.

Eta gasolina-zerbitzugune kontuekin bukatzeko, Osintxun Gureak enpresaren parte den Guregas-ek zeukana, berriz, itxi egin dute. Gabonetan izan da hori, baina lehenagotik jakinekoa zen ixtekotan zebiltzala. Hala, abenduan ordutegia murrizten hasi ziren eta Gabonetan ingurua prezintatu eta zerbitzua emateari utzi egin diote. Krisia izan da, kasu horretan, zerbitzu hori eteteko arrazoi nagusia.

## Biribilgunea eta bidegorria


Bonbulu gunea obraz josita, oraingo astean. | GOIATZ ARANA

Bonbulu gunean (Bergaratik Antzuolarako errepide zaharra bukatzen den gunea) datozen hilabeteotan aldaketa handiak izango dira. Izan ere, biribilgunea, bidegorria eta ur zikinak batzeko kolektorea eraikiko dituzte han; gehienak Beasain-Durango errepidearen obrekin batera.

Biribilguneari dagokionez, errepide horrek Bergararako sarrera izan dezan eraikiko du Gipuzkoako Foru Aldundiak azpiegitura berria. Aurten egingo dute hori; uda ingururako egitea da asmoa.

Bidegorriari dagokionez, berriz, Antzuola eta Bergara arteko zatia eraikiko dute, errekaren ondotik. Kasu horretan ere Diputazioak egingo du lan hori, aurten. Hori bai, aurreikusitakoa baino zati txikiagoa eraikiko dute Deskargako obrekin batera. Izan ere, Aldundiak 2015erako aurrekontuetan zeukan sartuta bidegorri horren zatietako bat (Bergararekin lotura egiten duena), baina, aurrekontuak luzatu egin direnez, orain, Batzar Nagusien erabakiaren menpe dago obra zati hori.

Bukatzeko, eta ur zikinen kolektoreari dagokionez, Antzuolako ur zikinak Bergarako kolektorera bideratzeko kolektore zatia eraikiko dute. Kontua da gaur egun Antzuolak izan baduela udalerri barruko ur zikinak batzeko azpiegitura, baina kolektore horrek Antzuola errekara botatzen ditu ur zikinok. Bada, Antzuolako kolektorea bukatzen den lekuan hasiko da kolektore berria eta Bergarako kolektorea hasten den lekuan bukatuko da. Modu horretan, Antzuolako ur zikinak Mekolaldeko araztegira bideratuko dituzte.

## Goienaren hedabideek jarraitzaile gehiago iaz

ENEKO AZKARATE | DEBAGOIENA

Gora egin dute Goiena telebistako ikus-entzuleek eta *Goiena.eus*-eko erabiltzaileek, eta GOIENA paperak eutsi egin dio irakurle kopuruari, eskualdeko erabateko nagusitasuna sendotuz, papereko euskarriek, oro har, behera egin dutela kontuan hartuta.

**Eskerrik asko!**

Hain justu, GOIENA papera liderra da, askogatik, Debagoienean. 29.000 irakurle ditu, *El Diario Vasco*-k (bigarren irakurriena) baino 12.000 gehiago. Gipuzkoan 36.000 ditu. Papereko guztiek egin dute behera lurraldean, ohiko joera da hori urteotan, baina GOIENA paperak gora egin du. Bakarra da. Eta, hala, eskualdean besteekiko zeukan aldea handitu egin du.

Goiena telebistak, berriz, astean barrena ditu ikus-entzule gehien: 10.000 ditu Gipuzkoan eta 7.000 Debagoienean. Asteburuan jaitsi egiten da audientzia. Aste osoa kontuan izanda, 8.000 ikus-entzule ditu Gipuzkoan.

Bada, eskualdean gora egin duen telebista kate bakarra da Goiena. Gainerakoek behera egin dute. Iazko datuekiko, 1.000 ikus-entzule irabazi ditu Gipuzkoan eta 3.000 Debagoienean. Laugarren kate ikusiena da Goiena ibarrean, ETB2, Tele5 eta ETB1 kateen ostean eta La Sextarekin berdinduta.

*Goiena.eus*-ek ere gora egin du. Google Analytics-en arabera, 2013an baino %14 erabiltzaile gehiago izan ditu. Azken urteotako joera da hori, urtetik urtera hazten eta hazten doa-eta. Gaur egun, batez beste, egunero, 5.400 bisita ditu astelehenetik barikura. Eta zapatuetan eta domeketan, 3.000 bisita ditu egunero. Hala ere, 2014an egon dira 17.000 eta 15.000 bisitadun egunak.

Goiena Taldeak eskerrak eman nahi dizkie jarraitzaile eta kolaboratzaileei 2014an ere erakutsitako fideltasunarengatik.

**Zergatik da .eus beste edozein domeinu baino hobea zuretzat?**

Ikuspuntu asko biltzen dituen puntua: zurea, auzokidearena, lagunarena, lagunaren lagunarena.
Zure ideia, produktu, zaletasun eta gustuentzat erreferentzia puntua.
Nor garen eta nondik gatozen jakiteko abiapuntua. Guk bezala hitz egiten dutenekin kontaktu puntua.
Interneten bereizten gaituen puntua.
Gure enpresa, langile, ikasle eta irakasleentzat euskarri den puntua.
Gure komunitatearentzat, kulturarentzat eta zuretzat puntu eta jarraia izango dena.
Anima zaitez eta sortu zure .eus domeinu-izena. Informazio gehiago www.domeinuak.eus webgunean

**Hemen duzu zure puntu berria**

.eus
gure domeinua

## ZABALIK



**JEXUX URMENETA**
goiena.eus/komunitatea/

# Bersiñuak

Hamendik bertatik infinito ingururaiño kilometro pillua dala, gizakixok bertaraiñoko urrinttasuna zenbaketako neurgailluen billa gabitz beti.

Espaziuari eta denborari dagozkixen gaixak gogokuak dittut: Big-Bangaren 13.700 milloe urte, milloeka galaxiatako izarrez betiak, zulo baltzen tirabirak, unibertsua zabalketan, Eguzkiraiñoko 150 milloe kilometro, Iratargixaren alde izkutua, *Homo sapiens*-en 150.000 urte…

Ehun bat urte dittu A. Einstein-en erlatibidadiaren teorixak eta S. Walking-en *Denboraren istorixia* liburua 1988kua da; bi gertakizun honeiri jarraittuaz egun lanian badabitz ikerlarixak munduan zihar, eta honeik, askotarikuak izanagatik nahiz goruntza begira katalejo ezberdiñez ibilli arren, gehixen-gehixenok antzeko bersiñua emuten doskue.

> **"Sasiletradu batzuk barriketa hutsaletan dabitz, mamiña barik"**

Via Lacteatik Euskal Herri barrenera jeitsiz, hamengo iragana eta oraiña be ondo azterttuak izan eta izaten dabitz. Denbora barrixak heldu xakula banakan batzuk ibilli badabitz sentsibilidade zein esparru ezberdiñeko pertsonen artian batasunaren billa, gatazka eta beronen izaera politikuaz argi eta garbi azalduaz eta biktima guzti-guztiak aintzat argiro hartuz. Egixari zor xaugulako.

Mezu onuratsu honei, baiña, prentsan zein ETBko kataietan ez xaue apenas arretarik egitten; egunkari eta mahai-inguruetan irakurri, ikusi eta entzuten dittugu zenbait sasiletradu ika-mikatan dirala, baiña honeik barriketa hutsal-hutsaletan dabitz, mamiña barik. 1512ko Naparrukua, 1936xan estatuko militarren kolpiana, eta gaur egun arteko gerra zikiña zein torturak aittatu barik, tertuliano gehixenok bertsiño estralurtarrak egitten ei doskue.

Aurreko abenduan Galiziatik etorri xakun musikazalia, eta berari esker gogoratu daigun bertako talde baten abestixak dixoena : "Zeintzuk garen, nundik gatozen eta noruntza goiazen!".

## USTEAK USTE

**AITZIBER ARANBURUZABALA** | aaranburuzabala@goiena.eus

# Orain eta lehen, jolasten

Astean Uno karta jolasa ezagutu dut. Mari Teiletakok, gure garaiko Ratoncito Perezek, ekarri zion alabari. Aspaldi jolasten nuen Chupate Dos jolasaren antza du; joko bera, marrazki ezberdinekin. Nancy ere orain gutxi sartu da gure etxean. Nire garaikoaren ahizpa da, antza du, baina ez da bera; modu berean jolasten da, baina, biekin. Egunotan, *Goonies, ET* eta *Zipi&Zape* filmak ikusi ditut. Bateko zein besteko arropa eta dekoratuek nire gazte garaietara eraman ninduten. Pantaila berera arreta osoz begira zeuden ondoan nituen gaztetxoek erakutsi zidaten filmarekin gustura bidaiatzen ari zirela. Istorioak eta jolasak, bada, ez dira modaz pasatzen. Urte berri on!

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | goiena.eus/komunitatea/




## GUTUNAK

# Aurtengue bukatu da

**Kepa Errasti**
Aretxabaleta

"Aurtengue bukatu da, laister itxungiko die argixek…", holaxe esaten euen abestixek, eta holaxe izen da. Aurtengue be pasau da. Laugarrena. Eskoriatza Aretxabaletaren aurka. Baiñe akusaziño eta defentsez harutzau, gauza asko emun dittu/dust 2014ko Debagoieneko tobera honek. Niri, pertsonalki, sekulako poztasune. Hunkigarrixe da holako proiektu baten timoie hartu, eta barkure igo dienek holako profesionaltasun, borondate eta entregiekin erantzutie. Oso ausartak izen zarie; danok! Ez da lan makala zueik egin dozuena, eta, lehenik eta behin, nire zorionik beruenak parte-hartzaille guztioi.

Egun pare bat pasau die egin gauenetik eta lorak baiño ez dittut jaso. Gustora itxi gauen jentie, baiñe inportantiena, oso gustora sentidu zinttuedan zueik eszenatoki gaiñien, ensaiuetan eta emanaldixaren ostien egindako afarixen. Eta horrek bai ez daukola preziorik; sortutako giruek. Herrittik herrixendako egindako zerbait. Ezinbestekuek izen die horretarako Aretxabaletako Udalak emundako laguntza eta baliabidiek.

Hau ez da Bruce Springsteenen kontzertu bat izengo, baiña askoz be baliotsuague da. Mille aldiz baliotsuague. Nire bizitza profesional laburtxuen gutxitan bizi izen dittut hainbeste asebete nauien proiektuek. Eta bene-benetan esaten dot.

Horregatik, eskerrik asko inguruen ibili zarien danoi emundakuagatik. Eta esker berezi bat Mirenei, Aitorrei eta Mikelei, egin dozuen papeloiagatik; Zangituri, eromen hau bideraketan hasi, eta denpora danien bidelagun izetiagatik; beste aipamen berezi bat nere *kuerpo de bailiai,* sartu dittuzuen orduengatik. Aretxabaletan gazterixie bizirik dauela aspaldixen! Bejondeizuela! Eta azkenik, eskerrik asko Bagarari aukera hau emutiagatik. Hor be txingurritxo mordue daz etengabe lanien. Gora, tobera eta Aretxabaleta! Bueno, benga, bale, Eskoriatza be bai…

Muxu haundi bana eta zorionak, barriro be, mokilmazuok!

# Eskerrik asko!

**Angel Maria Garcia Olabarria**
(Arrasateko Errege Kabalgatako Batzordearen izenean)
Arrasate

Arrasateko Errege Kabalgatako Batzordeak eskerrak eman gura dizkie hauei guztiei: Udalari, Udaltzaingoari, Obretako Brigadari, SUDCi, establezimenduei, banketxeei eta kabalgatan parte hartu duten herritar guztiei.

Horiei guztiei esker, beste urte batez, ilusioa banatu dugu umeen artean eta Iturbide egoitzan eta Debagoieneko Ospitalean daudenen artean.

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**
**Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena-abizenak, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 19.000 ale
**Difusioa:** 18.736 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Bergarako Udala

# Elkarlanean *bergaratzen*
# 2014an egindako lanak

## PROIEKTU IZARRAK

- San Antonion ordenazioz kanpoko etxeak erosi (San Antonio 1, 4 eta 6) eta bota (1eko "La Flor", 2 eta 4), eta San Antonio 8ko jabeekin akordioa lortu
- Etxe tutelatuak jantzi eta araudia ezarri
- Oñatitik eta Arrasatetik datozen bidegorrien jarraipena egin (Foru Aldundiak egin du. Bukatu gabe)
- Kotxea Garajean programa martxan jarri
- Permuta bidez Errege Seminarioa herriarentzat eskuratu
- Errege Seminarioko elizaren teilatua eta hormak konpondu, eta barruan erabilera anitzeko kultura-aretoa egiteko proiektua landu
- Mekolaldeko industrialdean errepiderako lotura egokitu
- Laboratorium museoa proiektua landu, obrak egin eta bisita gidatuak antolatu.
- Azoka Bergaratzen egitasmoa gauzatu
- Herriko komertzioa sustatzeko Bergara bizi, bertan erosi, guztiok irabazi proiektua garatu
- Azokako espazioak umeen aisialdirako egokitu
- Hondakinak biltzeko sistema mistoa ezarri
- Deba ibaia auzolanean garbitu
- Garbiena... zikintzen ez duena kanpaina abian jarri eta hainbat ekintza burutu. Bukatu gabe.
- EBPN (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia) onartu
- Prozesuetan oinarritutako antolaketa-eredua definitzen jarraitu (108 prozedura identifikatuta eta 83 definituta)
- Lan-eskaintza publikoa: lanpostuak atera

## LANDA AUZOAK

- Elorregiko elkartean irisgarritasuna bermatzeko arrapala egin
- Olan trafikoa baretzeko bitartekoak jartzeko proiektua landu (Udalak sustatuta, Foru Aldundiak egingo du)
- Mekolalden trafikoa baretzeko bitartekoak jarri (Udalak sustatuta, Foru Aldundiak egin)
- Angiozarren internet-sarea jarri
- Angiozarren erabilera anitzeko lokala egin
- Partaittiko luizia kendu eta bidea konpondu
- Angiozar eta Aldaiegia auzorako bidea zolatu (Foru Aldundiak)
- Angiozarko eskaintza turistikoa osatu
- Elosuko frontoiaren teilatua konpondu
- Elosuko plazaren berrurbanizazio-lanak amaitu, Azkoitiko Udalarekin lankidetzan
- Osintxun kulturartekotasuna landu
- Osintxun azterketa soziourbanistikoa egiten hasi
- Osintxuko zubiaren adokina berritu
- Osintxuko bide publikoetan hobekuntza-lanak egiteko kontratazioa abian jarri.
- Osintxun ibai ertzean baranda jartzeko lanak adjudikatu
- San Juan ermita eraberritzea sustatu eta diruz lagundu
- Basalgoko bide publikoetan hobekuntza-lanak egiteko kontratazioa abian jarri
- Baserri-bide publikoetan ertzetako sasiak kendu eta garbitu -90 km-
- Buruñaoko bidegurutzea zolatu eta seinaleztapen horizontala jartzeko lanak adjudikatu
- Uberan gas-hornikuntza bermatzeko, “Repsol Butano S.A.”rekin hitzarmena izenpetu

## HIRI AUZOAK

- Azkarruntzeko auzotarren mugikortasuna hobetzeko, abiadura murrizteko bitartekoak jarri (Udalak sustatuta, Foru Aldundiak egin. Bukatu gabe oraindik)
- Azkarruntzeko auzotarren mugikortasuna hobetzeko, bidezidorra egokitzeko lanak adjudikatu
- Labegaraietako jolas-parkea osatu
- Labegaraietako txiki-txokoa umeentzat egokitu
- Ozaeta kalea zolatu, eta espaloiak eta azpiko sarea konpondu (Bukatu gabe)
- Ozaetako autobus geltokirako irisgarritasuna hobetu
- Martoko espaloiko eskailerak kendu eta irisgarritasuna bermatu
- Martoko eskolan jubilatuentzako lokala eta txiki-txokoa egokitu

## GIZARTE ONGIZATE

- Mizpirualde egoitzan irisgarritasuna hobetzeko igogailuaren proiektua landu
- Mendekotasunen Prebentziorako IV. Plana onartu
- 80 urtetik gorako pertsonen etxebizitzetan suteen aurkako detektagailuak jarri

## KIROLAK

- Agorrosin kirolgunean ur kontsumoak murrizteko neurriak hartu. Paddle pistaren proiektua landu
- Gimnasioa handitzeko proiektua landu
- Herrian zehar bizikleten aparkalekuak jarri, eta garbitzeko gunea Agorrosinen
- Kirola Kalera 2-3 hiletik behin antolatu
- Bergara Kirol Elkartearekin Agorrosin-Ipintza erabiltzeko hitzarmena sinatu
- Jarduera fisikoaren errezeta emateko anbulategiarekin akordioa lortu

## HIRIGINTZA

- Antzuola-Bergara bidegorria eraikitzeko proiektua Foru Aldundiarekin landu
- Herri barruko bidegorri-sarearen proiektuaren idazketa abian jarri (Urteaga-Ibargarai; Boni Laskurain-Ernai eta Ugarte kalea)
- Azoka pareko bidegorria eraiki
- Udaletxean hirugarren pisurako igogailua jarri
- Iralako lurpeko zabor-biltegiak kentzeko proiektua adjudikatu
- Kruz Gallastegi kalearen azpiko garajeak inpermeabilizatzeko obra egin
- Alkabieta kalean aparkalekuak ordenatu (Bukatu gabe)
- Lizaria kalean biribilgunea egin
- Amillagan biribilgunea egin (Bukatu gabe)
- Zabalotegi kalerako irisgarritasuna hobetzeko arrapala proiektua landu
- Bidekurutzeta, Ramon Mª Lili eta San Pedro kaleak bat egiten duten eremuko irisgarritasuna hobetzeko proiektua idatzi
- Irisgarritasun Plan berrituaren idazketa abian jarri
- Kultura Etxeko irisgarritasuna hobetu
- Goenboluko biribilgunea egiteko proiektua landu (Foru Aldundiak egingo du)
- Herriko etxebizitza hutsen alokairu soziala sustatzeko laguntza-programa martxan jarri
- Barrenkaleko urbanizazio-proiektuaren idazketa abian jarri
- Masterreka kalea berrurbanizatzeko proiektua idazteko prozedura abian jarri
- Martoko ur-sarea berritu
- Amillaga kaleko ur-sarea berritu
- Barrutitxikiko ur-sarea berritu
- Udalak tramitazioa egin ondoren, Bergarako hirigune historikoa Birgaitze Integratuko Area deklaratu du Eusko Jaurlaritzak

## KULTURA

- Karpa Seminarioko patioan jarri erabilera anitzerako
- Soraluze-Elosua estazio megalitikoa seinaleztatu panelen bitartez
- Elosuko gaztelua panelen bitartez seinaleztatu
- Irakurle taldea sortu
- Ipuin-kontaketa hilero burutu
- Kultura batzorde “tematikoak”egiten hasi
- Kursaaleko ikuskizunetara autobusean joateko hitzamena sinatu

## TOKIKO GARAPENA

- Bigarren eskuko gauzak eta norbanakoek sortutako produktuen azoka bultzatu: Domeka Azoka
- Errekalde jauregia berreskuratu. Turismo bulegoa bertan jarri
- Turista kopurua handitu (9.000 turistak bisitatu dute Bergara)
- Turismo produktu berriak sortu: Bergarako lorategien bisita
- Hirugarren sektore aurreratua ezagutzeko ikerketa garatu
- Enpresa berriek lokalak alokatzeko diru-laguntzak emateko araudia landu
- Ekintzailetasun proiektua landu
- IKT prestakuntza astea antolatu eta burutu
- 3D inprimaketa digitalari buruzko erakusketa antolatu eta egin
- Herriko tabernariekin euren beharren inguruko kontraste saioak antolatu eta burutu

## AISIALDIA ETA HEZKUNTZA EZ-ARAUTUA

- Kafe Konpon ekimenarekin jarraitu.
- Gabonetako jolas-parkea Labegaraietan ez ezik Martinez Iralan eta frontoian antolatuko da.
- Atzerriko hizkuntzak praktikatzeko taldeak antolatu eta martxan jarri
- Umeen parte-hartzea sustatzeko aisialdiari dagozkion gaiak lantzeko lehen batzarra egin

## INGURUNEA

- Ostetan ekarpen- eta konpost-gunea eraiki
- Laudantzen auzo konpost-gunea eraiki
- Ozaetan konpost-gunea eraiki
- Laudantzen auzo konpost-gunea eraiki
- Errekalde inguruko babes-eremua zabaldu
- Olaso dorreko lorategia erabilera publikorako eskuratu
- Errekaren inguruan hitzaldiak eta bideo estreinaldia antolatu
- Bergarako kaleetan garbiketa berezia egin
- Herriko hainbat lekutan kartelak ipintzeko panelak jarri
- Fraiskozuriko ur-isurketak saneamenduko sare orokorrera lotzeko lanen zati bat kontratatzeko deialdi publikoa egin
- Udal mapa energetikoa osatu eta lantaldea martxan jarri
- Hirigune historikoan Led argiak jarri
- San Martzialerako bidean Led argiak jarri
- Hondakinak murrizteko tuperrak banatu

## EUSKARA

- Kirol kluben diru-laguntzen banaketa egiterakoan, euskararen erabilera aintzat hartu eta monitoreekin sentsibilizazioa lantzeko saioak antolatu
- Ikastetxeetako euskara batzordeak indartu
- Merkataritzako hizkuntza-paisaia euskalduntzeko Idazlaguna programa bultzatu

## ANTOLAKETA

- Prozedurak sinplifikatu eta dagokien arautegia moldatu
- DKS (Dokumentuen Kudeaketa Sistema) definizioa landu eta garatzen hasi
- Bisioa eta Prozesu Estrategikoak landu
- Parte-hartzea eta kontrasterako hainbat saio antolatu: azoka, Errege Seminarioko proiektua, Labegaraieta, Poligonoa, bidegorriak...
- Herritarrekin harremanak hobetzeko tramiteak web-orrian kokatu (12 tramite igota)
- Herritarren postontziaren prozedura landu eta martxan jarri

**2015ean ere ideiak ehuntzen, aukerak lantzen eta Bergara garatzen (*bergaratzen*) jarraituko dugu**

***Erderazko bertsioa, lotura honetan: http://bergara.net/es/node/3523***

**Joseba Azkarraga** | Sareko kidea

# "Biharkoa eztanda demokratiko ikaragarria izango da eta denok sentituko gara eroso"

- Sarek mobilizazioa deitu du biharko Bilbon, 'Now Euskal Herrira!' lelopean, 17:30ean
- Giza eskubide guztien alde dauden pertsona guztiak biltzeko bokazioa du mugimenduak

IRATI GOITIA | ARRASATE

Sare 2014ko ekainean sortu zen euskal presoen, iheslarien eta deportatuen giza eskubideen alde lan egiteko helburuarekin. Joseba Azkarraga da mugimenduko bultzatzaileetako bat. Hark erregistratu du, hain zuzen, bihar Bilbon egingo den mobilizazioa.

**Zeintzuk dira Sareren helburuak?**

Gure nahia da gizartea kohesionatzea, saretzea, presoen gaiaren inguruan. Hori da lehentasuna. Bestalde, baditugu lehentasunezkoak diren bi helburu garrantzitsu: praktikoki bizi osorako zigorra ahalbideratzen duten salbuespenezko legeak amaitzea eta gaixorik dauden presoen egoera aldatzea. Azken hori, gainera, ezinbestekoa da ikuspuntu humanitariotik.

**KonpONbidea ekimenetik sortu zen Sare, San Telmoko adierazpena egin eta hiru hilabetera. Nolatan sortu zen?**

Sortu zen herri honetan genuen hutsune bat betetzeko, eta, batez ere, gizarte sare plurala eratzeko. Izan ere, gizarte osoari zabalik egongo den mugimendua osatu nahi bada, oso zaila da alderdi politiko edo sindikatuetatik egitea hori; hein batean, alderdi bakoitzak bere ideologia duelako. Kasu honetan, gizartetik sortu den sareaz hitz egiten ari gara. Behetik gora sortu den sareaz, auzoetatik eta herrietatik eratu denaz. Sakabanaketa amaitzea helburu politikoa ez dela pentsatzen duten herritarrek osatua eta giza eskubideen errespetua oinarri duena.

**Beraz, Sare gizabanakoetan oinarritzen dela esan genezake.**

Bai, pertsonek osatzen dute. Mobilizazioari begira ere, guk ez genien deialdia egin alderdi politikoei edo sindikatuei; gizarte osoari baizik. Alderdiek egoki ikusten dutena egin dezatela. Sare, baina, gizartetik bertatik sortu dugu, herritarren ideologia zein den galdetu gabe. Hala, biharko mobilizazioaren oinarriak hori izan behar duela deritzogu; ez inongo alderdiren deialdiak.

**Uste duzu herritarren gehiengoa datorrela bat Sareren helburuekin?**

Nik uste dut zaila dela gehiengoez hitz egitea, baina uste dut gero eta jende gehiagok ulertzen duela ez duela zentzurik sakabanaketa presoei eta euren familiako kideei ezarritako zigor bezala mantentzen jarraitzeak, ETAren indarkeria desagertu zela hiru urte pasa dira-eta. Azken batean, hogei minutuko bisita baterako, ehunka edo milaka kilometro egin behar dituzte euren familiek. Legeak berak zehazten du, ordea, presoek euren etxetik gertu dauden espetxeetan egoteko eskubidea dutela. Beraz, nik uste dut presoen familientzako sufrimendu gehigarria eragiten duen hori amaitu egin behar dela.

**Zu zeu zergatik inplikatu zara Saren eta ez aurretik izan diren beste plataforma batzuetan?**

Sarek hainbat ezaugarri betetzen dituelako; tartean, ideologia politikoetan oinarritzen ez den mugimendua da. Ez da alderdikeriarik nagusitzen eta giza eskubideen errespetuan oinarritzen da. Beste kontu bat da gaiak eztabaida sortzea alderdi politikoen artean, asteon prentsan irakurri dugun moduan. Sarek ez du konfrontazio horietan sartu behar, ordea.

**Aste honetan EH Bilduk eta EAJk elkarren artean elkartrukatu dituzten mezuez ari zara?**

Sortuko arduradunak adierazpen batzuk egin zituen eta EAJk erantzun dio manifestazioa ezker abertzalearen helburua dela. Sortuk nahi duena egin dezala, eta berdin EAJk. Guk errespetatu egiten ditugu alderdiak; beraz, guk ez diegu esan behar zer egin behar duten. Bestalde, guk ez ditugu alderdiak gonbidatu biharko manifestaziora; baizik eta gizartea bere osotasunean. Herritarrek eurek erabaki behar dute joan edo ez, ideologiak alde batera utzita. Guretzat garrantzitsuak herritarrak dira, eta izan dira atxikipenak euskal gizartearen pluraltasun osotik. Zerrenda ikusiz gero, kolore askotarikoak daudela ikus daiteke, baita alderdi sozialistakoak ere.

**Baina oraindik badituzue oztopoak. Carlos Urkixok, Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak, Bilbao Arena pabiloia Sareri ez uzteko eskatu zion Bilboko Udalari, iralean egin behar zenuten ekitaldirako, adibidez.**

Bai, egia da oraindik gelditzen direla zirrikitu ez oso demokratikoak eta zuk aipatu duzun hori da adibideetako bat. Izan ere, kolektibo baten adierazpen askatasuna mozten saiatu ziren orduan. Uste dugu oraingo kasuan ez dela gauza bera errepikatuko, ez dugu uste biharko mobilizazioa galarazteko fiskaltzaren salaketarik egongo denik. Horrenbestez, biharkoa eztanda demokratiko ikaragarria izango dela uste dut. Ez da pankartarik izango. Nahi dugu jendea eroso sentitzea; hala, deserosotasuna sor dezakeen pankartarik edo oihurik ez da izango.



Joseba Azkarraga, dispertsioaren liburuxka eskuetan duela. | SARE

**"Ideologia politikoetan oinarritzen ez den mugimendua da"**

**"ETAk erabakia hartu zuenetik, espetxe politikan atzera egin da"**

**"Legea oinarri hartuta posible da presoen irteera mailakatua"**

**Iazko urtarrileko manifestazioa isila izango zela adostu zen, baina ez zen hala izan. Hainbat deseroso sentitu zirelako hartu da erabaki hori?**

Iaz izan ziren oihu batzuk, baina, manifestatu zen jendetza kontuan hartuta, oso zaila da halakorik ez izatea. Nik uste dut, ordea, ez diogula horri eman behar garrantzia. Iazko manifestazio baketsua, demokratikoa eta errespetuzkoa izan zen, eta hori da kontuan izan beharrekoa. Aurtengoa ere halakoa izango da. Horrela, joango diren pertsonak, familia osoak joango direla aurreikusten dugu, eroso egongo dira preso daudenen giza eskubideak errespeta daitezela eskatzeko.

**Uste duzu manifestazioa beharrezkoa dela Espainiako Gobernuak jarrera alda dezan?**

ETAk erabakia hartu zuenetik hiru urte pasa dira eta ez da aldaketa positiborik izan, negatiboak baizik. Espetxe politikan atzerakada gertatu da eta presoen familiartekoei min handiagoa eman zaie. Hala, guk uste dugu euskal gizartea mobilizatu egin behar dela. Gustatuko litzaiguke salaketa hau alderdi politikoek euren agendan sartzea, baina, hori gertatzen ez den bitartean, uste dugu gizartea mobilizatu behar dela, konponbidea behar duen arazo bat dugula gogorarazteko. Eta bai, bihar mobilizazioa egingo dugu, baina ondoren etorriko dira hilaren 11, 12a, 13a... Horietan ere lanean jarraitu beharko dugu. Ditugun helburuak lortzeko urteko egun guztietan egin behar dugu lan.

**Zuk zeuk erregistratu duzu mobilizazioa.**

Bai, baina Sareren izenean.

**Aukeratu duzuen leloa *Now Euskal Herrira!* da. Nazioarteratzea duzue helburu horrekin?**

Dispertsioaren inguruko 500.000 liburuxka atera ditugu eta horrekin lotuta dago. Mundu osoan gabiltza banatzen liburua, uste dugulako garrantzitsua dela mundu osoak ezagutzea nola urratzen diren eskubideak Espainian. Horregatik osatu dugu mezua hainbat hizkuntzarekin.

**Presoen irteera mailakatua ahalbideratuko luketen formulak beharrezkoak ikusten dituzu?**

Bai. Nik uste dut legea oinarri hartuta aukera dagoela irteera mailakatu hori egiteko. Ezin daitekeena onartu da Alderdi Popularraren gobernuak egiten duena, hau da, behin eta berriz legea bihurritzea, bete ez dadin. Hori da, esaterako, Frantziako espetxeetan betetako zigorrak kontuan ez hartzeko eta presoak Espainiako presondegietara lekualdatu dituztenean markagailua hutsean jartzeko eskatzen duenean egiten duena. Hori amaitu beharra dago. Guk nahi duguna da legea aplikatzea, baina ez salbuespenak egitea. Eta hori gertatzen da euskal presoekin. Legea aplikatuz gero, posible da espetxeetako egoera oso ezberdina izatea etorkizunean.

**Zein da bizikidetzarako beste urrats garrantzitsu bat?**

Nire ustez, oinarrizkoa da guztiok partaide sentituko garen memoriaren kontakizuna egitea. Izan ere, hemen hainbat biolentzia mota egon dira, Estatuarena edo eskuin muturrarena, ez ETArena bakarrik. Bestalde, ezin dugu ahaztu 9.600 tortura kasu baino gehiago izan direla. Denok partaide izango garen kontakizun hori osatzeak lan handia eskatzen du.

# HERRIAK

OÑATI



Arantzazuko Gandiaga 1 (ezkerrean) eta Gandiaga 2 (eskuinean) eraikinak; Gandiaga 1 eraikinak jasoko du aterpetxea. | JUAN BIAIN

# Maiatzerako bukatuta egongo da Arantzazuko aterpetxe berria

- Ugarte enpresak egingo ditu lanok, hamazortzi astean; urtarrilean bertan hasiko dira
- Hasierako proiektua egokituta, 56 lagunendako tokia egongo da eraikin berrian

MIREN ARREGI | OÑATI

Atzerapenarekin, baina martxan da Arantzazu Fundazioaren babesean Arantzazun egingo den aterpetxea. Hasierako asmoa 2013ko urte bukaerarako erabilgarri egotea bazen ere –hori jasotzen zen 2012ko proiektuan–, abenduan esleitu berri zaizkio lanak Construcciones Ugarte enpresari. Hori eginda, urtarrilean hasiko dira lanak, "behin kontratua sinatzen denetik gehienez hamabost eguneko epean". Ugarte enpresak lanak hamazortzi astean bukatzeko konpromisoa hartu du, eta maiatz erdialderako bukatuta egotea espero da. Aterpetxea ez da, baina, maiatzean erabilgarri egongo, ordurako ez da-eta eraikina altzariz hornituta egongo.

## Lehengoa egokituta

2012ko proiektuak jasotzen zuen moduan, Gandiaga 1 eraikinean egongo da aterpetxea eta 500 metro koadro izango ditu. Proiektu berria, baina, lehenengotik desberdintzen da. "Hain justu ere, Gipuzkoan lanean ari diren zenbait aterpetxeri bisita egin ondoren eta Eusko Jaurlaritzako Turismo lurralde-ordezkaritzan beharrezko kontsultak egin ostean erabaki da 2012ko proiektua aldatzea", dio Juan Biainek. Aldaketa nabarmenena da 56 lagunendako gaitasuna izango duela –2012ko proiektuan baino hamar gehiago–: "Arrazoia da autobus baten edukiera besteko gaitasuna edukitzea garrantzitsua ikusi dugula", dio Juan Biainek, Arantzazu Gaur Fundazioko ordezkariak.

## Sei gela

Aterpetxeak hamabi oheko lau logela izango ditu eta lauko beste bi. Gainera, hiruna dutxa eta beste horrenbeste izango dituen emakumezkoendako eta gizonezkoendako bainu gela bana izango ditu, eta ezinduendako egokitutako beste bainugela bat ere bai. 27 metro koadroko sukaldea eta 105 metro koadroko jangela-egongela izango ditu.

> **DATUA**
>
> **253.000**
>
> EURO
>
> Ugarte enpresak 59.000 euro merkatu du hasierako aurrekontua.

## Kudeaketa zehazteke

Lanak egiten diren bitartean, Arantzazu Gaur Fundazioak bigarren kontratazio fasea ipiniko du martxan; alegia, altzariei dagokiena. Maiatzera bitartean, gainera, kudeaketaren gaineko xehetasun guztiak zehaztu beharko ditu Fundazioak. Izan ere, kudeaketa Oñatiko Garapen Agentziarena izango zela esan bazen ere, puntu hori "lantzen" ari dira une honetan.

## Taldeendako

Aterpetxea taldeei bideratutako eskaintza da: "Eskola taldeei, bestelakoei, Ignaziotar Bidea egiten ari direnei...", dio Biainek. Eta hauxe gaineratu du: "Bestelako eskaintza badago Arantzazun, baina talde handiendako tokirik ez. Horiei pentsatutakoa da aterpetxea".

## Gandiaga 1, bukatuta

Aterpetxea bukatu ostean, Gandiaga 1 guztiz eraikita geldituko da. Gandiaga 2 eraikinean –Arantzazuko Parketxea dagoen eraikinean–, geldituko da Parketxea besteko eremu bat oraindik eraikitzeke: "Etorkizunean sor daitezkeen proiektuetarako", dio Biainek.

## Turismo eskaintzaren barruan

Oraindik kudeaketaren gaineko kontuak lotu barik badaude ere, Arantzazu Gaur Fundazioak eta Oñatiko Udalak argi dute aterpetxea Oñatiko kultura eskaintzaren parte egingo dutela. "Natura eta turismo baliabideak eta sinergiak batzea da helburua", dio Biainek.

Bestetik, Arantzazu Gaur Fundazioko kide Juan Biain pozik agertu da Fundazioaren helburuek eta proiektuek aurrera jarraitzen dutelako, eta bide horretan aterpetxeak dakarrena azpimarratu du: "Proiektuak aurrera egite horrek adierazten du badagoela konpromisoa". Gipuzkoako Foru Aldundiak, Oñatiko Udalak, Mondragon Taldeak eta Frantziskotarrek osatzen dute patronatua.

**Inazio Azkarragaurizar** | Alkatea

# "Gizarte laguntzei eutsi egingo diegu"

Udal aurrekontuetan hasierako lehentasunak mantenduko dituztela dio Inazio Azkarragaurizarrek; oposizioaren ezezkoari "hauteskunde kutsua" ikusten dio

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Arrasatearren ongizatea, enplegua sustatzea, gastu arrunta kontrolatzea, udal zergak mantentzea, finantza zorra murriztea eta inbertsioak faseka egitea izango dira 2015eko udal aurrekontuaren (31.525.278 euro) ildo aipagarrienak. Horien gainean berba egiteko egon da GOIENA alkatearekin.

**2015eko udal aurrekontua 2014koa baino %2,54 txikiagoa da. Zergatik?**

Iaz Aldunditik 950.000 euro pasa iritsi zitzaizkigun Aramaiorako errepidearen eskualdaketak eraginda. Kopurutan hor egon da aldaketa nabarmenena, gastuei eta sarrerei eutsi diegu-eta. Hau da, zergarik ez igotzea eta zorpetzea kontrolatzea lehenetsi ditugu.

**Aurten ere gastu sozialari eman diozue lehentasuna.**

Bai. Gizarte egoera ahulenean daudenak laguntzea izan da gure lehentasuna agintaldi hasieratik. Justizia sozialaren aldeko apustu sendoa egiten dugu eta norabide horretan argi dugu zein den gure iparra. Orain arteko gizarte izaerako laguntza eta programak mantendu egingo ditugu; hau da, orain arteko konpromisoei eutsi egingo diegu. Gainera, beste programa berri batzuk ere jarriko ditugu martxan. Horrez gain, enpleguaren alde ahalegin berezia egiten ari gara.

**Enplegua sustatzeko 2014ko lan ildoak mantenduko dituzue?**

Hasteko, esan beharra dago enpleguarena Jaurlaritzaren eskumena dela. Baina bereziki Fagor Etxetresnen itxierak eragindako astindua dela-eta neurri batzuk hartzea erabaki genuen iaz, lau ildorekin: Lanbai azoka, Udaleko kontratazioak, langabetuak kontratatzen dituzten enpresei laguntzak eta titulatu berrien bekak. Horiei eustea da gure asmoa.

**Barrura begira kirol batzordea eratu dela da nobedade aipagarri bat. Zer ekarriko du horrek?**

Kudeaketarako egokiagoa izango delako erabaki dugu Aukea kentzea, epe ertainera zenbait gastu aurreztuko ditugula iritzita. Herritarrengan eta langileengan ez du eragingo, funtzionamenduan ez da aldaketarik izango.

**EAJk kontra bozkatu du aurten, iaz adostutakoa ez betetzea egotzita. Zein da zure iritzia?**

Hauteskunde kutsua ikusten diot EAJren erabakiari eta ez da egia iaz hartutako konpromisoak ez ditugunik bete; %100 bete dugu.

**PSE-EE ere aurrekontuaren kontra, osotasunera aurka bozkatuta.**

Sorpresa izan da, Aritz Arrietarekin sintonian egon garelako eta ados zegoelako. Ez dugu ulertu azken orduko iritzi aldaketa hori; hor ere hauteskunde kutsua atzeman daitekeela esango nuke.



Inazio Azkarragaurizar, Goienaren egoitzaren atarian. | JOKIN BEREZIARTUA

**"Enpleguaren alde iaz hartutako neurriei eustea da gure asmoa"**


SERGIO AZKARATE


JOKIN BEREZIARTUA

## Olentzerok eta Errege magoek ilusioa oparitu dute aurten ere

Abenduaren 24ko goizean Txoronpia, Txoronpio eta Hartza ibili ziren auzoz auzo umeen gutunak jasotzen. Arratsaldean, Olentzerok menditik jaitsi eta urteroko ibilbidea egin zuen kaleetan zehar haurren artean gozokiak eta ilusioa barra-barra banatuz. Era berean, hiru Errege magoek ere egin zuten bisita; Iturbide egoitzan opariak banatu ostean, kabalgata ikusgarria egin zuten. Herriko Plazan amaitu zen kabalgata, Jesusen jaiotzarekin.


Uarkapeko pilotalekua jolasparke bihurtuta; irudian, karaokea. | TXATXILIPURDI

# Txikilandia arrakastatsua, Uarkapeko mugak hautsiz

**J.B.** | ARRASATE

Urtarrilaren 2tik 4ra egin da aurten Txatxilipurdiren Gabonetako jolasparkea. Uarkape pilotalekua izan da jolasaren epizentro, baina gaztetxea zein Musakolako kiroldegia ere busti dira Txikilandiaz.

Txatxilipurdi pozik dago aurtengoaz: "Orokorrean balorazio ona egiten dugu. Jendea gustura ibili da eta antolatzaileok ere ederto ibili gara. 1.300 bat haur ibili dira Txikilandiak iraun duen hiru egunetan eta egun arrakastatsuenak izan dira lehena eta azkena", diote.

**Gaztetxea, espazio egokia**

Aurten ere gaztetxeko kideengana jo dute ahalik eta Txikilandiarik dibertigarriena antolatzeko: "Gaztetxean tailerrak egin ditugu eta espazio moduan oso ongi baloratu dute haurrek, gurasoek eta guk. Gaztetxeko kideak eta haurrak oso pozik ibili dira euren arropak serigrafiatzen eta gaztetxeko horma baten mural bat egiten".

Txikilandia amaitzeko, *Ane eta Piratak parrandan* ikuskizuna egin zuten gaztetxean; haur, gaztetxo eta gurasoz bete zen gaztetxea, giro ederrean.

## Emakume etorkinendako bizipen tailerra antolatu du Ekinek urtarrileko azken hiru zapatuetarako

Harremanetarako gaitasuna, segurtasuna, lasaitasuna eta botere pertsonala indartzea helburu duen *Nigandik* tailerra antolatu du Ekin Emakumeak Elkarteak. Marisol Abreu izango da dinamizatzailea eta urtarrilaren 16an, 23an eta 30ean izango dira saioak, 16:00etatik 19:00etara. Izena emateko, 943-79 83 70 edo 651 70 79 36 telefono zenbakira deitu behar da; doakoa izango da.

## Euskal Herrian Euskaraz taldeak Jai Zale taberna hartuko du; irekiera ekitaldia, hilaren 16an (19:00)

Arrasateko EHEk kudeatuko du aurrerantzean Jai Zale taberna: "Ez dugu poteorako eta parrandarako gune soil bat nahi. Euskalgintza proiektuak gauzatzeko txoko bat nahi dugu, aniztasunetik eta euskaratik eraikia". Taberna txukuntzeko lanetan ari dira egunotan, eta irekiera ekitaldia urtarrilaren 16an izango da, 19:00etan. Herritar guztiak gonbidatuta daude inaugurazioра.

## Gure Esku Dagok hurrengo erronkak aurkeztuko ditu hilaren 14an, Angel Oiarbiderekin batera

Arrasateko Gure Esku Dagok bilera irekia deitu du hilaren 14rako, Kulturaten (19:00). Bilera horrek bi helburu izango ditu: 2015erako erronkak aurkeztuko dituzte, batetik, eta taldean parte hartzeko gonbidapena egingo dute, bestetik. 2014an egindako ekintzen balorazioa ere egingo dute, bideo eta guzti, eta amaieran, Gure Esku Dago ekimeneko bozeramaile Anjel Oiarbiderekin solasaldia egingo dute. Gura duenarendako ateak zabalik izango dira.

## Errekara erori zen autoan zihoazen herritarrei laguntzeko "ganorazko jarrera" txalotu du Udalak

Abenduaren 27an Etxaluze ondoan izan zen istripuaren aurrean hainbat herritarrek izandako erreakzioaren harira, esker on mezua bidali du Udalak. Ezbeharra izan zutenei laguntzeko errekara sartu ziren herritarren "ganorazko jarrera" txalotu du Udalak: "Pertsona baten bizitza salbatu zenuten, egoera latz haren aurrean jarrera aktiboz erantzun zenutelako". Autoa gidatzen ari zen herritarra hil egin zen, 79 urteko gizonezko arrasatearra.

**Josu Zubia** | Mondrako entrenatzailea

# "Igoerarekin itsutu barik, jokalari bakoitzari onena ateratzen saiatuko naiz"

## Duela 11 denboraldi Mondra Ohorezko Mailara igo zuen entrenatzailea lorpena errepikatzeko itzuli da

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Mondrak Gotzon Urzelairen ordezko izendatu zuen Josu Zubia Gabonetan. 23 urte daramatza entrenatzaile lanetan Zubiak; 2002-2003 denboraldian Mondra Ohorezko Erregional Mailara –orduan Preferente Maila zen– igo zen taldea zuzendu zuen, eta, beraz, badaki zer den Mondra mailaz igotzea. Horixe errepikatzeko bueltatu da etxera. Asteon gidatu du lehen entrenamendu ofiziala eta asteburuan Mutrikun zuzenduko du lehen partidua.



Josu Zubia. | GOIENA

**Etxera zatoz bueltan. Gogotsu?**

Oso gogotsu. Astigarragan bizi naizen arren, gertutik jarraitzen dut Mondra, beti jarraitu izan dut. Zuzendaritzarekin pare bat bilera egin ostean dena lotu genuen. Ilusio handiz nator, Mondraren deia ezusteko pozgarria izan da.

**Hamar urte badira taldea utzi zenuenetik. Nola aurkitu duzu Mondra?**

Sekulako ilusioa ikusi dut, lanerako eta gauzak ondo egiteko gertu. Gogotsu ikusi ditut jokalariak, eta hori oso garrantzitsua da.

**Zer eskatu dizu zuzendaritzak?**

Ez dago ezer eskatu beharrik. Talde bati baiezkoa ematen badiot, konprometitzen naiz lana ahalik eta ondoen egitera. Badakit aurtengo helburua mailaz igotzea dela, baina denboraldi erdian gaude dagoeneko eta lehen postua eskuratzea zaila izango da. Hori bai, saiatuko garela ez dago zalantzarik. Aurten ez bada, datorren denboraldian igoerari begira jarriko gara lanean denok. Hori bai, ezin gara helburu horrekin itsutu; jokalari bakoitzari ahalik eta errendimendu onena ateratzen saiatuko naiz lehendabizi. Lehen postuak bermatzen du igoera, baina aurten aukera askotxo daude lehen bi taldeak zuzenean igotzeko. Hori, baina, ezin da aurreratu. Partiduz partidu joan behar dugu, eta ikusiko da lanak zein fruitu ematen duen denboraldi amaieran. **"Ilusioaren denboraldia" deituta ekin zion Mondrak aurtengoari.**

**Ilusio horri eusteko bada arrazoirik?**

Ilusioari azkenera arte eutsi behar zaio, bai ala bai. Ilusio hori badago, baina egia da lehen itzulian emaitzek ez dutela lagundu. Hala ere, oraindik puntu asko dago jokoan. Kategoria hauetan ahalik eta erregularrena izatea da gakoetako bat, indarrak oso parekatuta daude-eta.

**Talde bat denboraldi erdian hartzeak lana zaildu egingo du, ala?**

Ez dakit esaten, lehen aldia delako. Jokalarien erdiak-edo ezagutzen nituen aurretik eta gainerakoen lehen inpresioak onak dira. Gustura nago taldearekin; goian egoteko moduko jokalariak ditugu. Lehen postuei eustea izango da helburua, eta ea nola heltzen garen azken bost partiduetara. Hori bai, partiduz partidu joan behar dugu; are gehiago, entrenamenduz entrenamendu.

**Mutriku izango da lehen erronka, aurkari zuzen bat.**

Bai; gurea ondo egiten badugu, aukera handiak izango ditugu irabazteko. Horretara goaz.

# Aratusteetako kartel lehiaketan parte har daiteke dagoeneko

**J.B.** | ARRASATE

Udaleko Kultura Sailak 2015eko Aratusteetako kartel lehiaketa jarri du martxan. Kartelak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 30a izango da (19:00); Biztanleen Arreta Zerbitzura eraman beharko dira. Kartel irabazlearen egileak 400 euroko saria jasoko du. Aratusteetako ezaugarriren bat jaso eta adierazi beharko du kartelak eta honako testu hau izan beharko du derrigorrez: *2015 Inauteriak Arrasate*.

Teknika librea izango da eta obrek originalak izan behar dute. Epaimahaiak lehiaketatik kanpo utz ditzake lanak honako kasu hauetan: autorea nor den zalantzan dagoenean, pertsonen duintasunaren aurka doazenean, eta beste obra batzuen plagiotzat hartzen direnak edota plagiotzat ez jo arren beste obra batzuetan inspiratutakoak izanik eta, haiekin dituzten berdintasunez jabeturik, originaltasunik ez dutenak. Bada, saritutako lana Udalaren esku geratuko da.



Iazko kartel irabazlea. | UDALA

## Helduendako autodefentsa saioa bihar Musakolako kiroldegian, Ziorla Kenpo taldeak antolatuta

Ziorla Kenpo taldeak helduendako autofedentsa ikastaroa antolatu du Musakolako kiroldegian, 10:30etik 13:30era. Nork bere burua defendatzen ikasteko oinarrizko kontzeptu batzuk irakatsiko dituzte: "Eta inoiz beharko bazenu?", galdetu dute antolatzaileek. Era berean, iragarri dute ondo pasatzeko aukera egongo dela eta kenpoa ezagutu gura duenak ateak irekita izango dituela. Tailerra doakoa izango da eta, hasiera baten, Musakolako kiroldegira joanda nahikoa izango da.

CAMBRIDGE ENGLISH
Language Assessment
Authorised Centre
Cambridge ESOL Examinations Centre ES438

MARTXOKO DEIALDIA
AZTERKETAK **ARRASATEN**, EIBARREN eta DURANGON

MATRIKULAK
Urtarrilaren 7tik 23ra

AZTERKETA DATAK

| | |
|---|---|
| PET | Idatzia eta ahozkoa **Martxoak 14** |
| FCE | Idatzia eta ahozkoa **Martxoak 7** |
| FCE FS | Idatzia **Martxoak 21** / Ahozkoa – **Martxoak 14** |
| CAE | Idatzia eta ahozkoa – **Martxoak 14** |
| CPE | Idatzia eta ahozkoa **Martxoak 7** |

INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK

| | | |
|---|---|---|
| ARRASATE: | Parlance | 943 77 06 83 |
| | Idiomaster | 943 79 07 84 |
| BERGARA: | Espolon School of English | 943 76 03 53 |
| EIBAR: | Anglo-American | 943 20 01 08 |
| | Link Idiomas | 943 20 39 59 |
| ERMUA: | Akerlei | 943 17 66 32 |
| ELGOIBAR: | Kensington School of English | 943 74 02 36 |
| | Key Academia de Inglés | 943 74 30 44 |
| OÑATI: | Academia Sheila Fritz | 943 78 20 91 |
| ONDARROA: | Howdy | 96 683 23 79 |
| DEBA: | Akabi | 943 19 16 79 |
| | North Street English | 943 19 25 00 |
| DURANGO: | San Jose Maristak | 94 681 00 58 |
| MENDARO: | Akabi | 943 75 50 55 |
| MARKINA: | Chatterbox | 94 616 96 39 |
| ELORRIO: | Ontrack Hizkuntza | 94 658 46 73 |
| BERRIZ: | Speak up | 94 622 52 94 |
| ZUMAIA: | Golden Gate | 943 86 50 20 |
| MUTRIKU: | Gogoz | 943 60 43 58 |

# Simon Arrieta eta bere lana ezagutzeko urtea

- 2015eko otsailaren 9an, hura jaio zeneko mendeurrena beteko da
- Erakusketez gain, pintore ezagunari buruzko liburu bat egingo dute

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Simon Arrieta pintore ezaguna jaio zeneko mendeurrena beteko da aurten, eta herrikideek ekintzaz betetako urtea antolatu dute. Datozen hilabeteetan, Arrieta eta bere lana ekarriko dute gogora.

**Pintorea eta irakaslea**

Simon Arrieta Bergaran jaio zen 1915eko otsailaren 9an. Eustakio Agirreolearekin pintura ikasi eta gero, Madrilen osatu zituen ikasketak Valentin Zubiaurrerekin eta Ignacio Zuloagarekin. 17 urterekin, Velazquezen eta halako maisuen lanak kopiatzen zituen.

Espainiako gerrak bere ibilbidea eten zuen arren, 1950ean Madrilera bizi izatera joan zen familiarekin. Bi urte geroago, Minerva aretoan egin zuen erakusketan sekulako arrakasta izan zuen, erakutsitako koadro guztiak saldu, eta enkargu asko jaso zituen-eta. Hala ere, 1953an herrira bueltatzea erabaki zuen. 1969an hil zen are, Bergarako bizigiro kulturalean partaide aktiboa izan zen, herriko artista berriei lagunduta eta erakutsita.

Neurri batean, herrian horrenbeste pintore egotea Arrietak egindako lan pedagogikoagatik da. "Margotzeaz gain, ikasitakoa irakatsi zuen eta horrek herrian aztarna laga du", dio Jaione Isazelaia alkateak.

**Ekintzaz betetako urtea**

Omenaldien zerrenda Beartek hasiko du: urtarrilaren 16an Aroztegin zabalduko duten erakusketa herriko pintore ezagunaren omenez izango da. Hori, baina, ez da herriko taldeek egingo dioten omenaldi bakarra: otsaileko Udal Musika Bandaren kontzertua ere Arrietaren omenez egingo da. Haren lana hobeto ezagutzeko, *koadro forumak* egingo dituzte, eta azaroan margolariaren lan adierazgarrienek beteko dute Barrenkaleko aretoa.

Gazte hil zen pintorearen ondarea ezagutzeko, inbentarioa egingo dute, eta norbaitek etxean Simon Arrietaren koadroren bat badu, *beart.elkartea@gmail.com* helbidean jakinaraz dezake. Horrez gainera, pintorea eta bere lana errepasatuko dituen liburua aurkeztuko dute sanmartinetan.

Edozelan ere, omenaldiak eta ekintzak ez dira herrian bakarrik izango; adibidez, Donostian eta Baionan ere omenduko dute Simon Arrieta.




Mendeurreneko antolatzaileak, alkatea eta margolariaren seme alabak, Simon Arrieta plazan. | IMANOL GALLEGO

## Oxirondoko aparkalekuan ezingo da egoiliar txartela erabili

I.G. | BERGARA

Urteko azken osoko bilkuran onartu zen Oxirondoko azoka aurrean dagoen aparkalekuko TAO sisteman aldaketak egitea. Ordenantza berria martxan jartzen denean, otsail erdialdean, egoiliarrek ezingo dute txartela aparkaleku horretan erabili. "Gainontzeko erabiltzaileek bezala, txartela atera beharko dute", azaldu dute Udaletik.

**Txandatzea areagotzeko**

Aldaketa horiekin, azokako erosleei zerbitzu hobea eman nahi diete. "Zapatuetan eta azoka egiten den egunetan aparkalekua beteta egon ohi da; neurri honekin, toki gehiago egotea nahi dugu", dio Jaione Isazelaia alkateak.

Oxindoro azokako proiektua garrantzitsutzat jo du alkateak, eta, neurri horiekin, azokak beharrezkoak dituen zerbitzuak hobetu eta jendearendako espazio hori erakargarriago egin nahi dute. "Txandatzeak, azokako saltzaileei ez ezik, inguruko merkatariei ere egingo die mesede".

## Jardunen aisialdi taldea osatzeko bilera bihar kultura etxean

Euskara elkarteak egin berri duen gogoeta prozesutik irten zen aisialdi lantalde bat sortzeko ideia. Biharkoa (11:00), Jardunek eskaintzen duen aisialdia aztertu eta aurrera begira eskainiko dituen zerbitzuak definitzen hasteko saioa izango da. Interesa duen edonork parte har dezake lantaldean.

## Profesional mailako binakako txapelketako partidua pilotalekuan

I.G. | BERGARA

Pilotari profesionalen gaua izango da gaurkoa: 22:30ean hasita, Udal Pilotalekuan bi partidu jokatuko dira. Partidu nagusiaren aurretik, Jaunarenak eta Tolosak Mendizabalen eta Merinoren kontra jokatuko dute. Horien ostean, Bengoetxea eta Aretxabaleta Retegi Biren eta Rezusta bergararraren aurka ariko dira lehen mailako binakako txapelketako partiduan. Norgehiagoka hori laugarren jardunaldiko partiduetako bat da izango da.

**Sarreren salmenta**

Sarrerak pilotalekua bertan eros daitezke, 13:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 20:30etara. Hara joaterik ez daukanak, berriz, 688 61 40 11 telefono zenbakira deituta eskura ditzake.

Honako hau izango da sarreren prezioa: 30 euro kantxan eta 15 goian.

Reyes Azkoitia BKEko pilota saileko arduradunak aurreratu duenez, Bergarako Pilota Eskolak izango du aurre-salmentaren ardura, eta aurrez saldutako sarreren %10 eskolarentzat izango da.



Jaialdiko lau pilotari nagusiak, materiala aukeratu ostean. | AMAIA TXINTXURRETA.

## Sare sozialak eta ediziorako aplikazioak KZguneko ikastaroetan

I.G. | BERGARA

Urtarrilean hainbat ikastaro eskainiko dituzte KZgunean. Ahalik eta erabiltzaile gehiagorengana iristeko asmoarekin, ikastaro labur eta luzeak egongo dira. Laburrak bi ordukoak izango dira; luzeak, hogeikoak.

**Ikastaro laburrak**

Saio motz horiek hastapen ikastaroak izango dira, eta bertan, Facebook, lainoa eta Open Office Writer testu ediziorako aplikazioa erabiltzen irakatsiko da. Egun bakarreko ikastaroak izango dira, eta ez da aldez aurretik ezagupen maila handirik behar.

**Ikastaro luzeak**

Bigarren ikastaro horiek, aldiz, osoagoak izango dira, eta, sare sozialetan jarduten ikasteko aukera izateaz gain, irudiari eta soinuari lotutako aplikazioak hobeto ezagutzeko aukera emango dute.

Ikastaro labur gehienak goizez eta arratsaldez izango dira; luzeak, aldiz, goizetan. Gogoan izan behar da ikastaroak Irizar jauregiko hirugarren solairuan dagoen KZgunean emango direla. Argibide gehiago behar dituztenek 943-02 36 26 telefonora deitu edo *tutor.bergara@kzgunea.net* helbidera bidal ditzakete euren zalantzak.



Zabalotegi aretoan egingo den *Txio-txioka* antzezlana. | TAUN-TAUN ANTZERKI TALDEA

# Proposamen interesgarriz beteta dator kultura agenda

## Urtarrilean, ikastaroak, hitzaldiak, antzerkia, zinea, erakusketak eta dantza izango dira protagonistak

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

Urtea umorez eta gogoz hasteko, ekitaldi interesgarriz betetako kultura gida aurkeztu du Udalak. Urteko lehen 31 egun hauetarako, adin tarte eta zaletasun askotariko pertsonak asetzeko moduko proposamen sorta antolatu dute.

**Helduentzako proposamenak**

Askotariko aukerak izango dituzte nagusiek. Martxanteren eskutik autodefentsa feminista ikastaroa egongo da. Ekintza lasaiagoak nahi dituztenek *Baga, Biga, Higa: euskarazko musikaren transmisioa eta sustapena* hitzaldia izango dute 29an; eta 30ean, *Gozoa, gazia eta antsietatea* hitzaldi makrobiotikoa. Zineak ere tartea izango du.

**Gaztetxoek euren tokia**

Gabonetako ekitaldi zerrenda luzea atzean utzi eta gero, haurrek urtarrilean zehar euren tokia izango dute. Bihar, Zabalotegi aretoan urteko lehen DJ jaialdia egingo dute, eta, Amaia DJren eskutik, erritmo dantzagarrienak entzun eta dantzatuko dituzte, 18:30ean hasita.

Hilaren 18an, Zabalotegik, dantzaleku izateari utzi, eta herriko Taun-Taun taldearen *Txio-txioka* antzezlana hartuko du. 18:00etan, txotxongiloen bidez fantasiaz beteriko istorio bat ezagutuko dute 4 eta 8 urte bitarteko umeek, eta sarrerak 4 euro balioko du.

Horrez gain, urtarrilaren 25ean, gaztetxoek lehenbizi *Cómo entrenar a tu dragón 2* eta gero *Guardianes de la galaxia* filmak ikusteko aukera izango dute, biak Zabalotegi aretoan.

Eguraldiari aurre egin eta urtea kalean hasteko moduko hilabetea prestatu du Udaleko Kultura Sailak.

### 'Elizaren kantu zaharra' emanaldia datorren egubakoitzean

Ensamble Sapientak Frederci Tavernier-Vellasekin eskainiko du emanaldia datorren egubakoitzean. Sinagogatik Erromako eliza arteko kantuak izango dituen kontzertua 20:00etan hasiko da Trinitateko komentuan, eta sarrera borondatea izango da. Emanaldiaren ostean, mokadutxoa egongo da.

### Oroimena lantzeko tailerra aurkeztuko dute San Joxepen

Martitzenekoa aurkezpen saioa izango da. 18:00etatik aurrera, San Joxepeko kideek ikastaroaren nondik norakoak ezagutuko dituzte, eta, horren ondoren, nahi duten guztiek izena emateko aukera izango dute. Ikastaroak 15 euroko kostua izango du, eta, taldea sortzen bada, eskolak 15:00etatik 16:30era izango dira.

## OHARRAK

**KORRIKA ANTOLATZEKO LEHEN BATZORDEA**

Martitzenean 18:30ean kultur etxean egingo da batzar irekia Korrikaren inguruko ekitaldiak definitzen asteko.

**AMAIA AGIRREK IRABAZI DU ELKARTASUN ZOZKETA**

Amaia Agirre da 2.925 txartelaren jabea, eta, hortaz, hark dastatuko du zozketa horren saria den marisko-jan bikaina.

# Urrea ekarri dute Errenteriatik



BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

Abenduaren 27an Bergarako Musika Eskolako haurren abesbatzak Errenteriako Gabon Kanten Lehiaketan parte hartu zuen. *Astotxo bien erdian* eta *Hiru Gabon kanta* abestiak interpretatu zituzten, eta txapelketako lehen sariarekin bueltatu ziren.

KOMUNITATEA GOIENA | BERGARAKO MUSIKA ESKOLA | BERGARA

## NIRE USTEZ

**JOSU ELORZA**



# 2015a, bagoaz

Egun gutxi dira urtea hasi berri dugula, mahai baten bueltan senidez inguratuta xanpain eta mahatsekin ongietorria eman geniola. Liburu bat hastera goaz, dena prest dugu; 365 kapituluz osaturiko eleberria abiarazi dugu jada.

Momentu ahaztezin, bidai miresgarri eta pasarte zirraragarriz beteriko ibilbidearen prologoa besterik ez da hau. Istorio ororekin gertatu bezala, ezinezko egiten zaigu kontakizun honen amaiera aurreikustea edota bidean suertatuko zaizkigun eragozpenei nola aurre egin planifikatzea. Liburua amaitu bitartean hamaika aldaketa jasango ditu gidoi zehatz gabe hasten dugun bizi ipuin honek. Amets egiteko garaia dugu.

Eleberria nahasten saiatuko diren norbanako eta kanpo eragileen presentzia ere ez da faltako aurtengoan. Ahalik eta gutxien parte hartzea eskatu nahiko nieke, norberaren pasarteak gutxi ez eta gizarte oso baten istorioengan oztopoak jar ez ditzaten eskatzea aurtengorako. Ikusi behar jasotako erantzuna.

Eguneroko pasarteak dira garrantzitsu bizitzako eleberri honetan, hurrengo kapitulua hobea izango delakoaren ilusioarekin, unean unekoa disfrutatzen jakinda. Nire liburua osatuko duzuen guztioi, bihotzez, aurreko urtekoan eman zenidaten zoriontasun eta momentu imajina ezinen bestekoa opa dizuet.

**"365 kapituluz osaturiko eleberria abiarazi dugu"**

### Labegaraietatik kanpo eta norgehiagoka zail batekin hasiko du urtea herriko eskubaloi taldeak

Joan den urtean azken postuetako zulotik irten eta gero, herriko eskubaloi taldeak ez du erroka erraz batekin hasiko urtea. Azpeitiko Lau Bide Jatetxea taldeak oso denboraldi ona egin du, eta sailkapenean gorago dago. Hala ere, gaur, 19:15ean, ez dira kikilduko eta Legazpiko Bikuña kiroldegian barruan duten onena ematera irtengo dira.

### Soraluce Bergara KE saskibaloi taldeko mutilek urte berria garaipenarekin hasteko aukera dute

Donosti Dolphins taldea izango dute parez pare bergararrek. Bihar, zapatua, 16:00etan, Donostiako Mons kiroldegian jokatuko dute, eta puntuak etxera ekartzeko ahalegina egingo dute. 2014a garaipen batekin borobildu eta gero, urtea garaipen batekin hasteak taldeari gorago postuetara begira jartzeko behar duen bultzada emango dio.

### Etxean hondatuta dauden trasteei beste aukera bat emateko Kafekonpon saioa eguaztenean izango da

Eguaztenean (16:00) egingo da urteko lehen Kafekonpon saioa. Betiko moduan, interesa dutenak San Joxepe elkarteko lehen solairuan batuko dira. Etxean hondatuta dagoen edozein traste eroan daiteke hara, eta, kafetxo bat hartuz, elkarrekin horiek konpontzeko aukera egongo da. Trebezia berezirik behar ez den arren, ikasteko gogoa ezinbestekoa da.

### Patxi Monterok jendearen oinak mugitu eta talde dantzak erakutsiko ditu domekan Zabalotegin

Domekan izango da hurrengo Herrixa Dantzan saioa, eta 19:00etan Zabalotegi aretoa dantzaleku bihurtuko da. Patxi Monteroren gidaritzapean, bertaratzen direnek Euskal Herriko eta Europako talde dantza ugari ezagutu eta ikasiko dituzte. Orain arte bezala, doakoa izango da saioa.

### Biodantza zer den ikusi eta probatzeko saioa egingo da hilaren 12an Mariaren Lagundia ikastolan

Mentxu Arjonilla irakasle eta adituak gidatuko du biodantzaren gaineko saioa, eta, 18:30etik 20:30era, bizitza ospatu eta beste ikuspuntu batetik dantza berezi hori ezagutzeko aukera egongo da. Nahi duten guztiek 626 66 12 92 telefono zenbakian eman dezakete izena.



Julen Umerez, domekan Ormaiztegin jokatu zen Gipuzkoako txapelketan. | GTXE

# Julen Umerez Espainiako txapelketan egongo da etzi

Herriko ziklo-kros taldeak Gijonen bukatuko du aurtengo denboraldia

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Espainiako ziklo-kros txapelketa jokatuko dute Gijonen (Asturias) domekan, eta hantxe izango da Arrikrutz Aloña Mendi taldeko Julen Umerez. Euskal Selekzioarekin joango da. Oñatiko taldea bera ere joango da, eta hantxe bukatuko dute taldekideek aurtengo denboraldia.

### Martxoan, errepidera

Gaur, egubakoitza, goizean abiatuko da Julen Umerez Gijonera. Euskal Selekzioarekin lehiatuko diren beste txirrindulariekin batera joango da Umerez.

Taldeko gainerako kideek, bestalde, bihar goizean hartuko dute Asturiaserako bidea. Saileko zuzendariek txirrindulariei egindako oparia izango da, egindako denboraldiagatik.

Hirugarren urtez hartuko du parte Julen Umerezek Espainiako txapelketan, eta aurten ere lasterketa ona egiteko asmoarekin doa. "Badakigu Gijon erdialdean dagoen parke batean lehiatuko direla, ia hiru kilometro dituen zirkuitu batean. Zirkuitu gogorra izango dela ere badakigu", dio Arrikrutz Aloña Mendi ziklo-kros taldeko presidente Kepa Umerezek.

Domekako lasterketaren ostean atseden hartuko du herriko ziklo-kros taldeak. "Martxoaren hasieran hasiko da errepideko denboraldia eta ordura arte atseden hartuko dugu", adierazi du Kepa Umerezek.

### Hirugarren Gipuzkoan

Merezitako atsedena hartuko du taldeak. Izan ere, urriaren bukaera ezkero, lasterketa baten baino gehiagotan parte hartu du Arrikrutz Aloña Mendi taldeak, eta txukun ibili dira txirrindulariak. Julen Umerezek berak, esaterako, Gipuzkoako txapelketan hirugarren postua lortu zuen joan den asteburuan Ormaiztegin. "Proba laugarren bukatu zuen. Ez genuen podiuma egiterik lortu, baina Gipuzkoako txapelketa orokorrean hirugarren postua eskuratu zuen eta oso pozik gaude. Ormaiztegira, gainera, Oñatiko jende asko joan ohi izan da beti. Aurten ere zale asko izan zituzten Oñatiko txirrindulariek", dio Kepa Umerezek.

## Ia 400 euroko funtsa egin dute txantxiek orain arte

**O.E.** | OÑATI

Hiru hilabete pasa dira txantxia zirkulazioan jarri zenetik eta horren balorazioa egin du Udal Gobernuak. Balorazio baikorra egin du. Dio orain arte 50.610,99 txantxi jarri direla zirkulazioan: "Ikusirik hasierako aurreikuspena urte batean 150.000 txantxi jartzea zela, esan dezakegu aurreikuspenen dezente gainetik goazela". Bestalde, merkatariek eta erakundeek 12.711 txantxi eraman dituzte aldatzera eta horrek ia 400 euroko gizarte-funtsa sorrarazi du dagoeneko. Erabiltzaileei dagokienez, orokorrean, 31 eta 40 urte bitarteko emakumezko langile oñatiarrek egin dituzte aldaketa gehien. Oñatiarrak ez direnek, esaterako, ia 520 euro erabili dituzte.

### Abendu hasiera, motela

Abenduaren 30ean 39.481,00 txantxi zeuden zirkulazioan. Txandako presidente Juan Carlos Aranbururen esanetan, oraindik ez dute Gabonetako kanpainaren baloraziorik egin; hala ere, abendu hasiera motela izan zela adierazi du: "Salmentak oso motelak ziren abenduaren hasieran. Pentsatzen dut Gabonetako kanpainan egondako mugimenduan txantxiak ere gehiago erabiliko zirela. Elikagaiak saltzen dituen dendari batek, adibidez, asko erabili dituela esan dit".



Txantxiak denda baten. | GOIENA

## Neguan irakurtzeko, ikusteko eta entzuteko gomendioen gida

**O.E.** | OÑATI

Aurtengo neguan ere atera du liburu, film eta disko gomendagarrien gida Udal Liburutegiak, bailarako eta Legazpiko udal liburutegiekin elkarlanean. Gabonetako oporren atarian atera zuen eta herriko ikasleen artean banatu zituen aleak, ikastetxeen bitartez. Udal Liburutegian bertan ere badago gida, hala ere, edozeinek kontsultatzeko moduan. Baita udal webgunean ere.

Neguko gidak 39 liburu jasotzen ditu, hainbat hizkuntzatan idatzitakoak, adinka sailkatuta. Irakurgaiez gain, CDak eta DVDak ere badakartza gidak.



Gidaren azala. | GOIENA



OÑATIKO UDALA

## Juanitosakoa gustukuena

Juanitosa dendako erakusleihoa izan da Gabonetako erakusleiho lehiaketako irabazlea. Epaimahaiaren lehenengo saria ez ezik, herritarren saria ere eskuratu du. Sari bikoitza irabazi du, beraz. Bestalde, erakusleiho birtual hoberenaren saria Luar arropa dendak eraman du. Zorionak parte-hartzaile guztiei!

### Korrika datorrela eta, bilera irekia egingo dute astelehen iluntzean

Urepelen hasiko da 19. Korrika martxoaren 19an eta Bilbon bukatuko da hil horren 29an. *Euskahaldun* leloarekin, Euskal Herriko herriak zeharkatuko ditu, eta hori girotzeko lanetan dihardu AEK-k. Oñatin zer egingo den pentsatzeko, bilera egingo dute astelehenean, 18:30ean, kultura etxean. Maite Ilarduiak, bailarako koordinatzaileak, gidatuko du.

### Gutxienez zazpi autobus joango dira bihar Bilbora

Gutxienez zazpi autobus joango dira Oñatitik Bilbora bihar, Sarek deitu duen euskal presoen eskubideen aldeko mobilizazioan parte hartzeko. Zortzigarrena ere eskatuta zuten eguazten iluntzean. Autobusak 10:00etan eta 15:00etan irtengo dira Enpresagintza Fakultate paretik, eta 20:30ean itzuliko dira Oñatira.

### Olatz Larrañagak eta Rosa Markuletak, 600 euro bakoitzak

Olatz Larrañagak eta Rosa Markuletak irabazi dituzte Txandak Gabon jaietan eman dituen bi sari potoloak. 600 euro irabazi ditu bakoitzak, egun bakarrean gastatu beharrekoak. Zozketak abenduaren 24an eta urtarrilaren 5ean izan ziren. Bestalde, Turismo Bulegoarekin antolatutako ginkanak harrera ona izan du.

### Irrien Lagunak gaztetxera etorriko dira domekan

Irrien Lagunak Antixena gaztetxera etorriko dira etzi, domeka. 17:00etan hasiko da ikuskizuna. Sarrerak momentuan bertan erosi ahal izango dira, eta aldez aurretik Foruen plazan. Urtarrilerako antolatu dituzten ekitaldien artean, musika, eztabaida saioa eta fanzine baten aurkezpena daude.

### 'Altxorraren uhartea' ikusteko sarrerak salgai daude

Urtarrilaren 17an, Oñatiko Ganbara Txiki Abesbatzak *Altxorraren uhartea* (Louis Stevenson-en nobelan oinarrituta) musikala euskaraz estreinatuko du Oñatiko Zubikoa pilotalekuan. 17:30ean eta 20:00etan izango dira emanaldiak eta sarrerak salgai daude Txokolateixian eta *Ganbara.org* helbidean.

# Ibarra kiroldegiko tasak %21 jaitsiko ditu Udalak otsailetik aurrera

## Garbiketa zerbitzua emateko sei enpresa aurkeztu dira eta kirol jarduera, harrera eta mantentze-lanetarako, lau

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Otsailarekin batera Udalak beregain hartuko du Ibarra kiroldegiaren kudeaketa. Eta dagoeneko iragarri ditu nobedadeak ordurako: prezioek %21 egingo dute behera. Horren arrazoia da kiroldegirako onartutako tasei, BEZ zerga ez diotela ezarriko (2014ko abenduaren 17an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta).

Herritarrendako berri pozgarria izatea gurako lukete Udal Gobernuko kideek, eta zera gaineratu dute: "Instalazio bikainak dituen kiroldegi batean abonatzea orain merkeagoa izango delako Ibarra kiroldegian izena ematera animatzen dugu herritar oro".

**Lizitazio kartazalak zabaltzen**

LKS, Athlon eta Ondoan kooperatibek osatutako aldi baterako elkarteak urtarrilaren 31 arte kudeatuko du kiroldegia. Hala adostu zuten azaroan bi aldeek, elkarteak eta Udalak, eta otsailetik aurrerako lanak banatzeko lehiaketa bi deitu zituen abenduan Udalak.

Garbiketa zerbitzuaren kudeatze posturako sei enpresa aurkeztu dira. Lizitazio aurrekontua izan da 109.572 (BEZ barik) eta eskaintzen lehen kartazalak astean zabaldu dituzte. Hirugarren eta azken kartazala astelehenean zabalduko dute, eta ondoren hartuko du erabakia gobernu batzordeak.

Kirol jarduerak, mantentze -lanak eta harrera zerbitzua emateko, ostera, lau enpresa aurkeztu dira. Lizitazio aurrekontua da 322.645 euro (BEZ barik) eta urtarrilaren 19aren bueltan zabalduko dute eskaintzei dagokion azken kartazala. Orduan hautatuko dute hiru zerbitzuak emango dituen enpresa. Hala, ondo bidean, otsailaren 1arekin batera hartuko du bere gain Udalak kiroldegiaren kudeaketa.



Markole auzoan dagoen Ibarra kiroldegia. | GOIENA

# Barberena eta Agirre nagusi 'Ostegun kontalariak' lehiaketan

## Kultura sustatzeko antolatu du Udalak eta tabernetan izan dira bakarrizketak

M.A. | ARETXABALETA

Eneko Barberena arrasatearra eta Manex Agirre aramaioarra dira *Ostegun kontalariak* lehiaketaren irabazleak. Publikoak hautatu ditu, eta 100 euro jaso dituzte saritzat Udaleko Gazteria teknikari Maider Etxanizen eskuetatik. Dirua, gainera, Ziburuko Kastarotenea ikastolari eman diote.

Elkarrekin egin zuten bakarrizketa saioa Express tabernan. Lehenengoak idazleen lanbidearen eta paperaren gainean jardun zuen; eta besteak, bertsolaritza kontuen gainean. Umorea izan zuten nagusi biek.

**Kultura sustatzea helburu**

Aretxabaletako Udalak antolatu eta Arteman Komunikazioak gauzatu duen hirugarren lehiaketa izan da –aurretik egin ziren *Ostegun bidaiariak* eta *Ostegun akustikoak*–. Eta aretxabaletarrei zuzendutako kultura eskaintza sustatzea izan du helburu oraingoan ere. Lau emanaldi izan dira azaroa eta abendua bitartean, Aitor Agiriano eskoriatzarrarena, Belen Azkarate antzuolarrarena, Iraitz Agirre arrasatearrarena eta bikote irabazlearena. Hala, herritarrek kontakizun dotoreekin gozatu dute.




Maider Etxaniz, Eneko Barberena eta Arantzazu Lagunilla. | ARTEMAN

## Aratusteak iragartzeko kartel lehiaketa zabalik

M.A. | ARETXABALETA

2015eko Aratusteak iragarriko dituen kartela hautatzeko lehiaketa deitu du Kultura Sailak. Lanok urtarrilaren 19a baino lehen aurkeztu behar dira Arkupe kultura etxean, eta saria da 200 euro.

Edozeinek har dezake parte eta teknika librea izango da. Kartelak honako neurri hau izango du: 50x70 zentimetro paperean, eta digitalean eramanez gero, DIN-A3. Honako testu hau izan beharko du derrigorrean: *Aratusteak, Aretxabaleta 2015*.

Lanarekin batera kartazal itxi bat aurkeztu beharko da ezizenarekin, eta horren barruan egilearen datuak: izen-abizenak, adina, helbidea eta telefono zenbakia. Epaimahaia osatuko dute kultura batzordeko kideek eta herriko hainbat lagunek, eta epaiaren berri emango dute urtarrilaren 21ean.

## Korrika batzordeak martitzenean egingo du lehenengo bilera

Aretxabaletan Korrika batzordea osatu eta lanean hasteko bilera egingo dute datorren martitzenean, urtarrilaren 13an, 18.30ean, Loramendi elkartean. "Bertan hitz egingo dugu datorrenaz eta guk herrian piztuko dugunaz", jakinarazi du Maite Ilarduiak, Debagoieneko ordezkariak, eta herritarrak gonbidatu ditu.

## Estatuko karate txapelketa jokatuko du Odei Vazquezek

Euskadiko Selekzioko kideekin batera jokatuko du Odei Vazquez Puerto aretxabaletarrak estatuko karate txapelketa hilaren 17an eta 18an, Guadalajaran. Senior mailan (67 kiloz azpikoetan) eta kumite modalitatean jardungo du. Orain arte egindako lanaren eta sakrifizioaren saritzat hartu du Vazquezek hautaketa.

NIRE USTEZ



BEÑAT ZAMALLOA AKIZU

## Ohartzerako

K-tarrek aurreko zapatuan egin zuten brainstorming klasikoa. Jada erabaki zuten eurena. Facebookean A-ren mehatxuarekin egin nuen topo asko ez dela: aurten ere berak irabaziko ei duela torrada lehiaketa. Egun horri begira Z-ri jada entzun diot kareta zertaz mozorrotu pentsatu beharko dutela, eta aurreko astean ikastetxeetatik osteratxoa egin beharko dutela haurrak eta gaztetxoak animatzeko.

KL ari dira egunotara begira fin, dena antolatzen eta denaz arduratzen; aitorpen gutxiko eta merezimendu handiko lanean. I-rekin bileretan ei dabiltza.

Bilera osteko tabernako elkarrizketak irudikatzen ditut. Batzuk, hobetu eta aurrera egin nahian borondatetsu lanean; eta, beste batzuk, lehengo lepotik burua. K-tarrek erabaki zuten gau berean, E-ri entzun nion eurek oraindik ez dutela pentsatu, eta jarri beharko direla horretarako, nahiz eta beste behin guztia azken unean egin. Eta zenbat horrela... U-koek egin beharko dute handiren bat aurten ere. Z-tarrak, ordea, azkenaldian apalduta daude: izan zirenari antzik eman ezinda, gainbeheran.

Urtero legez, badatoz Aratusteak. Aurten, bereziki, konturatzerako izango ditugu gainean.

Konturatu aurretik ibiliko gara Txapel Txin ospatzen, eta ibiliko gara herri oso bat festan. A-tik Z-tara.

**"Konturatu aurretik ibiliko gara Txapel Txin ospatzen"**

Martin
Mitarte 16
ARETXABALETA
943 79 01 72
ERLOJU DENDA - BITXITEGIA
ERRETIROAGATIK
%30eko
deskontua bitxietan
Eskerrik asko denoi!

# Hilaren 23an irekiko ditu ateak Zaldibar antzokiak, kultura areto izateko gertu

## Mota guztietako ekitaldiak izango dira urtarrilean; adibidez, dokumentalak, antzerkia eta pailazoak

**IMANOL BELOKI** | ESKORIATZA

Eskoriatzako Santa Ana auzoko Zaldibar antzokiak urtarrilaren 23an irekiko ditu ateak. Inaugurazio ofiziala 13:00etan izango da, eta bertan, udal ordezkariak, alkatea eta Foru Aldundiko ordezkariak izango dira.

Ekitaldi xumea prestatu dute, baina, hala ere, Debagoieneko herrietako udalei gonbita egin diete egun horretarako. Aurreskuarekin emango diote irekiera antzokiari. Horren ondoren, eraikinaren historia islatzen duen dokumentala emango dute Dragoi Produkzioek; hain zuzen ere, gaztetxea, mojen komentua, zinema… izan zen garaikoa.

Arratsaldean, berriz, bisita gidatuak egingo dituzte, 18:00etan, 19:00etan eta 20:00etan, herritarrek antzoki berria nolakoa den ikus dezaten.

Obrak luze joan diren arren, amaituta dago antzokia, eta hainbat kultura ekitaldi antolatu dituzte hilabete osorako.

**Ekintza ugari hilabete osoan**

Inaugurazio ofiziala egin eta hurrengo egunean, Demode Quartet taldea egongo da taula gainean, 22:30ean. Antzerki ikuskizun horretan, *a capella* abestutako bertsioak entzungo dira, baina baita pianoz, gitarraz, eskusoinuz eta kaxoi flamenkoz lagundutakoak ere; koreografia atseginak eta elkarrizketa bitxiak izango dira ikusgai.

Urtarrilaren 25ean, berriz, Poxpolo Ta Konpainia izango da, 17:30ean, umeentzako. 29an, Gure Esku Dagok egin berri duen *Jostunak* dokumentala eskainiko dute eta 30ean, 19:00etan, musika eskolakoek kontzertua eskainiko dute. Eta, azkenik, hilabetea amaitzeko, emanaldi bikaina egongo da: *Gosariak*.

**'Gosariak' Zaldibar antzokian**

*Gosariak* urtarrilaren 31n izango da, 23:00etan, Zaldibar antzokian. Joseba Sarrionandiak sortutako testuak kanta bilakatu ditu Gose musika taldeak, eta, era berean, irudiak sortu dituzte Iñigo Arregik eta Juan Luis Goikoleak.

Egitarau zabalarekin hilabetea hainbat kontzertu eta ikuskizunekin bete dute eta herritarrek antzoki berria estreinatzeko gonbita egin dute Udaletik.



Santa Ana auzoan dagoen Zaldibar antzokia. | IMANOL BELOKI


Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegia. | ESKORIATZA UDALA

# Kirol zerbitzu zabalagoa urte berriarekin batera

## Hainbat deskontu eta askotariko aukerak izango dira, besteak beste, Eskoriatzan

**I.B** | ESKORIATZA

Urtea osasuntsu hastea da Eskoriatzako Kirol Zerbitzuaren helburua. Kirol eskaintzei dagokienez, orain arte sortutako talde guztiak indartzea, ordutegi zabalagoa eskaintzea eta ekintza berri hauek martxan jartzea da erronka: body balancea, 60 urtetik gorakoentzako senior gimnasia, helduentzako igeriketa, hastapen ikastaroak eta pilates test indibiduala.

Kiroldegiko abonatuentzat, berriz, dagoeneko martxan dago osasun-fitness zerbitzua: martitzen eta eguenetan, 10:15etik 11:15era eta 18:30etik 20:30era. Zerbitzuak, batetik, aholkuak ematen ditu pertsona bakoitzari komeni zaion kirolari buruz; eta, bestetik, gimnasioan dauden aparailuak egoki erabiltzeko aholkuak ematen ditu.

**Beherapenak kiroletan**

2015ean merkatu egin dira zenbait prezio, batez ere, hiruhileko tarifetan. Beste zenbait kasutan, berriz, beherapenak daude. Fitnessean, Wellnesss ekintzetan, bigarren ekintzatik aurrera %50eko beherapena dago, baina ekintzetako batek, gutxienez, bi egunekoa izan behar du. Jende gutxiko ordutegietan, hiru ekintza biren prezioan egiteko aukera dute zenbait kolektibok.

Tarifa berezia duten ikasleek, langabeek-eta urtarrilaren 20a baino lehen aurkeztu beharko dute kiroldegian egoera hori frogatzen duen agiriren bat. Eta, beti bezala, nahi duenak bi saio doan egin ditzake proba moduan, gonbidapenak kiroldegian eskuratuta.

**Zumba eta spinninga**

Urtarrilerako eta otsailerako, ekintza osagarriak antolatu dituzte. Eskoriatza sartuta dago hainbat herrik osatutako spinning eta zumba zirkuituetan (Oñati, Arrasate, Antzuola, Eskoriatza, Legazpi eta Zumarraga). Herri horietako batzuetan, *Ziklon Day* (spinninga) eta *Zumba Day* egunak egiten dituzte, eta ikasturte bukaeran maratoi-jaia ospatzen dute. Zirkuituari azaroaren 8an eman zioten hasiera, Oñatin, eta urtarrilaren 24an Eskoriatzan izango da.

# Sariak banatu dituzte Eskoriatzako autoeskolan

Eskoriatzako autoeskolan gidabaimena euskaraz atera dutenen artean sariak banatu ditu Eskoriatzako Udalak. Saridunak Josu Furundarena eta Beñat Arrieta izan dira. Solozabal autoeskolan atera dute gidabaimena biek eta Maider Landa zinegotziak eman zien saria.



ESKORIATZAKO EUSKARA ZERBITZUA

### Izaskun Muxikak 4 urtetik gorakoentzako ipuin kontaketa egingo du Udal Bibliotekan hilaren 29an

Izaskun Muxika antzezle eta kontalariak ipuinak kontatuko ditu urtarrilaren 29an Udal Bibliotekan, 18:00etan. Ibilbide luzea daukan Muxikak; Euskal Herriko liburutegi, ludoteka eta ikastetxe askotan ibili da ipuinak kontatzen gaur egun arte, eta oraingoan Eskoriatzara etorriko da. Besteak beste, *Ibili alai, ipuinetan blai; Munduko ipuinak* eta *Izeba Joxepiren baserria* kontakizunak eskaini ditu, eta, euskarazko kontaketara umeak hurbiltzeko gonbidapena egin dute Udal Bibliotekatik.

### Gaur eman behar da izena bihar Bilbon 'Now Euskal Herrira!' lelopean egingo den manifestaziorako

Biharko, zapatua, Sare ekimenak deitutako manifestaziora joateko autobusetarako txartelak Inkernun eta Hoteleko tabernan eros daitezke. Hain zuzen ere, autobusa 15:00etan irtengo da, erdialdeko autobus geltokitik, eta ekitaldia bera 17:30ean hasiko da, Bilboko bi puntutatik: udaletxetik eta Casillatik. Presoen dispertsioa amaitzea eskatzen du ekimen horrek, eta parte hartu nahi duenak gaur, egubakoitza, izango du autobus txartela erosteko azken eguna.

# Urtarrilean hasiko da mus txapelketa eta zazpigarren aldia beteko du aurten

Kanporaketa jokatuko den tokian eman beharko dute izena parte-hartzaileek, herritarrek

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Herriko mus txapelketa urtarrilaren 9tik 25era bitartean jokatuko da, zazpigarrenez. Zortzi erregetara jokatuko da mus txapelketa. Finala, hain justu ere, urtarrilaren 25ean, domekan, izango da Arin jatetxean, 16:30etik aurrera. Parte hartzeko, interesa dutenek jokatu nahi duten tokian eman beharko dute izena bikoteko 20 euro ordainduta.

**Kanporaketen egunak**

Lau kanporaketa jokatuko dira urtarrilean zehar. Hauek dira: urtarrilaren 9an, barikuan, 22:15ean, Mox tabernan; urtarrilaren 16an, barikuan, 22:15ean, Gailur tabernan; urtarrilaren 17an, zapatuan, 16:00etan, Ongi Etorri jatetxean; eta urtarrilaren 18an, domekan, 16:30ean Eperra elkartean. Kanporaketa batean bakarrik parte har daiteke, eta, kanporaketa egin ahal izateko, gutxienez lau bikotek parte hartu beharko dute.

Zazpigarren edizioaren finala, aldiz, urtarrilaren 25ean, domekan, Arin jatetxean 16:30etik aurrera jokatuko da.

**Bete beharreko baldintza**

Bikotearen kide bat antzuolarra izatea eskatzen da. Hala, senidetasun lotura duen kanpoko batekin edo Antzuolan lan egiten duen batekin osa daitezke bikoteak. Ez da onartuko biak kanpokoak izatea.



Sabina Agirre eta Karmen Egaña tuteko txapeldunak. | LANDATXOPE

# Emakumezkoak izan dira nagusi karta jokoetan

Landatxope elkarteak sariak banatu ditu

M.A. | ANTZUOLA

Banatu dituzte iazko karta txapelketako sariak Landatxope erretiratuen elkartean. Musean, gizonezkoak nagusi; puntxoan, briskan eta tutean, aldiz, emakumeak irabazle. Debagoieneko txapelketan parte hartuko dute udaberrian irabazleek.

Karmen Egañak eta Sabina Agirrek tute txapelketa irabazi zuten; Antoni Egañak eta Jesusa Etxanizek puntxoko txapelketa; Beatriz Gabarainek eta Dolores Saizek briskakoa. Gizonezkoetan, ordea, Felix Alonso eta Mariano Urrutxi musean nagusitu ziren. Irabazleek garaikurra eta xanpain botilak eskuratu zituzten.

**Erretiratuen esker ona**

Urtean zehar elkartean antolatu diren ekintzetan parte hartu duten erretiratuei eskerrak eman dizkie Landatxopeko zuzendaritza batzordeak. Bereziki "zoriondu eta eskertu" dituzte iaz bazkide egindako 42 erretiratuak; bazkide egiteko gutuna jaso duten 220 pentsiodunak ere "gonbidatu" dituzte.

## Elikagaien euskal karabana abian da

KOMUNITATEA GOIENA | ANELKAR | ANTZUOLA

Otsailean irtengo da karabana, Tindufeko errefuxiatuen kanpamendura elikagaiak eramateko asmoz. Hala, urtarrilaren 19ra arte elikagaiak jaso daitezke Aixan, Amaian, Denetiken, Eroskin eta Herri Eskolan. Laguntza ekonomikoak Laboral Kutxako zenbaki honetan egin daitezke: 3035 0080 94 0800054177.



ANELKAR



GAZTETXOKOA

## Gazte txokoa, Selekzioarekin bat eginda San Mamesen

KOMUNITATEA GOIENA | GAZTETXOKOA | ANTZUOLA

Abenduaren 28an, Euskal Selekzioaren partidua ikustera joan ginen gazte txokoko 40 bat lagun. 17:00etan Antzuolan autobusa hartu eta Bilbora iristean parke batean egon ginen partidua hasi arte. 20:30erako San Mamesen geunden, pozik eta urduri partidua zela joango ote zen. Primeran ibili ginen.

## NIRE USTEZ



IMA BERISTAIN

# Burujabetza behar dugu

Espainiako Estatuaren jarrera zentralistak ez du mugarik: defizit muga ezartzen digute, bandera espainiarra ezartzeko agindu ziguten, Udalbiltzari bideratzen diogun diru laguntzari salaketa jarri diote... burujabetzaren murriztea dakarte guztiek ere.

Orain berriz, euskal presoen euskal herriratzea (beraien legeak betetzea, alegia) aldarrikatzen duen kartela kentzeko agindu digute batetik, eta Espainiako Gobernu Ordezkaritzara bidaltzen diren akta guztiak gazteleraratzeko bestetik.

Adierazpen askatasunaren aurkako eraso larria da lehena, beste behin ere presoak eta beraien eskubideak egoera politikoa baldintzatzeko erabiliz. Bigarrena, berriz, euskaldunon aurkako eraso berri bat da, Euskal Herria euskalduntzeko dugun bide luzean atzerapauso garrantzitsua.

Nekagarria da etengabe legearekiko talkan ibili behar izatea: legea bete gure irizpideen aurka, edo desobedientziara jo eta horrek dakartzan ondorioak onartu. Ba al du zentzurik gobernuan egoteak egoki deritzegun erabakiak hartu ezin baditugu?

Egoera honi buelta emateko bidea gure lege propioak egitea da. Beraz, inplika gaitezen burujabetzarantz egiten diren ekimenetan, gutxi batzuon eskuetan ez, guztion eskuetan dago eta!

## OHARRAK

**ODOL ATERATZEA**

Hilaren 15ean odola emateko aukera, Olaranen, 17:30ean.

**SARE: MANIFESTAZIOA**

Bihar, urtarrilak 10, autobusa 15:45ean irtengo da Olaran ondoko geltokitik Bilbora joateko.

**DANTZA IKASTAROA**

Aratusteetako dantzak ikasteko aukera bihar, urtarrilak 10, Oinarinen eskutik. 10:30ean Jota de Tudela izeneko dantza eta 11:30ean, sorgin-dantza ikasteko aukera. Izena eman daiteke: *oinarindt@gmail.com*.



Ramon Ajuria alkateak udaletxean hartu zituen Mendialdua, Velez de Mendizabal eta Salaberri, azaroan. | IMANOL SORIANO

# Urrezko Zeledoiak protagonista asteburuan

Rafael Mendialduaren meza, Sabin Salaberriren kontzertua eta Josemari Velez de Mendizabalen hitzaldia eta 'Galderak' antzezlana, gaurtik domekara arte

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Urrezko Zeledoien Elkarteak Josemari Velez de Mendizabal ikertzaile eta idazle aramaioarra izendatu zuen 2014an Urrezko Zeledoi. 1962an ematen hasi zenetik, Urrezko Zeledoia urtero Gasteizen ematen den herri mailako sari garrantzitsuena da. Gasteizen eta Araban kultura, gizarte, arte edo zientzia argitalpenen bidez hiria zein lurraldea goresteko egindako lanaren egileari ematen zaio saria, eta Velez de Mendizabal sari hori jasotzen duen hirugarren aramaioarra da.

Aurretik Rafael Mendialdua apaizari (2003an) eta Sabin Salaberri (2005) musikagileari eman zieten sari preziatua. 2014ko azaroaren 8an Udalak harrera egin zien hiru sarituei; orduan alkateak adierazi zuen "ohorea" zela Urrezko Zeledoien bisita jaso izana, eta herriko hiru seme horiek "ondo merezita" dutela saria.

**Aramaio, hiru dituen bakarra**

Aramaio da hiru Urrezko Zeledoi dituen Arabako herri bakarra. Lorpen hori gogora ekarri eta Mendialduaren, Salaberriren eta Velez de Mendizabalen lanak eta ibilbidea ezagutzera emateko hainbat ekitaldi antolatu dituzte aste bukaera osorako. Gaur bertan, hitzaldia egingo du Velez de Mendizabalek, Sastiñan (19:00); Aramaioko XIX. mendeko prentsa eta testuingurua izango ditu hizpide. Bihar, Doke Antzerki Taldearen *Galderak* obra ikusteko aukera egongo da, kultura etxean (22:00). Velez de Mendizabalena da antzezlan horretako testua eta aktore moduan ere parte hartzen du.

Domekan, amaitzeko, Rafael Mendialduak esango du meza San Martin elizan (12:00), eta gero, Bizente Goikoetxea abesbatzak eta Arabako Koruak Sabin Salaberriren obrak interpretatuko ditu; Salaberrik organoa joko du.

# Gazte Asanbladak hamar urte, eta lanean segitzeko gogotsu

Abenduaren 26an ospatu zuten urteurrena Sastiñan, bideo sorpresa eta guzti

J.B. | ARAMAIO

Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladak (ATGA) abenduaren 26an ospatu zuen 10. urteurrena. Gazte Asanbladaren ibilbidea islatzen zuen argazki erakusketa jarri zuten Sastiñan, eta, horren ondoren, sorpresa modura, bideo barregarri bat jarri zuten. Bideo horretan, biltzarreko egungo kideak lekukoa utzi zutenak imitatzen agertzen dira: "Oso ondo joan zen ekitaldia, adin guztietako jendea egon zen. Bideoan, hamar urteotan Asanbladan egon diren pertsona esanguratsuenak dira protagonista; asko gustatu zitzaien".



Gaur egungo Gazte Asanbladako kide batzuk iaz Aratusteetan. | ATGA

**Udalarekin sakondu guran**

Hasi berri den urteari begira gogotsu daude ATGAkoak: "2015a urte bat gehiago izango da guretako. Ekintza berriak antolatuko ditugun ez dakigu, baina, Udalarekin gaztetxe baten gainean hitz egitea lortzen badugu, aurrerapauso handia izango dela uste dugu. Proiektu hori martxan jartzea da 2015eko helburu nagusia. Izan ere, gazteok kudeatutako espazio baten beharra ikusten dugu. Udalarekin hitz egin gura dugu, baina, hauteskundeak datozenez, korporazio berriari itxarongo diogu", diote.

Amaitzeko, gogora ekarri dute jende berria "beti" izango dela ongi etorria. Hurrengo ekintza Aratusteetarako antolatuko dute.

# Haurrek eta helduek askotariko ekintzak izan dituzte Gabonetan

Tailerrak, kontzertuak, mendi martxa, bertsoak eta jolasparkeak protagonista, besteak beste

J.B. | ARAMAIO

Haurrek, gazteek zein helduek ez dute aspertzeko astirik izan Gabonetan; izan ere, Udalak egitarau zabala prestatu du herriko hainbat kultura taldeekin eta eragilerekin batera. Bizente Goikoetxea abesbatzaren kontzertutik hasi eta urtarrilaren 2an kiroldegian jarritako jolasparkea itxi arte, denetariko ekintzak egon dira Aramaion.

Umeendako egun handiena hilaren 24an izan zen, Olentzeroren etorrerarekin. Traktorean iritsi zen Ibarrara ikazkin maitatuena, eta trikitilarien eta argi-zuzilarien laguntzarekin kalejiran jaitsi zen Sastiñara. Eta han, umeak banan-banan hartu zituen.

**Bertso saio "txukuna"**

Gabonetako beste ekitaldi klasiko bat da bertso saioa. Kultura etxea bete egin zen abenduaren 26an Aitor Mendiluzeren, Beñat Gaztelumendiren, Alaia Martinen eta Xabi Igoaren bertsoez gozatzeko. Bertso Eskolako Paula Amilburu eta Sabin Aranburu ibili ziren gai-jartzaile: "Saio txukuna eta umoretsua izan zen. Bertsolariek gai eta egoera bereziei erantzun behar izan zieten, eta egon zen herriko gaiak jorratzeko tartea ere", diote Bertso Eskolakoek.



Olentzerok banan-banan hartu zituen umeak Sastiñan. | AIZPEA AJURIAGERRA



Abenduaren 26ko saioko bertsolariak eta Bertso Eskolako kideak. | BERTSO ESKOLA

## Martxan daude urtarrilaren 31n egingo duten Santa Agedako eske herrikoirako entseguak

Santa Ageda bezpera egun berezia da hainbat aramaioarrendako. Eta hori, hein handi baten, Bizente Goikoetxea abesbatzari, Bertso Eskolari eta Trikikalejira taldeari zor zaie. Azken urteetan egindako lanari esker jende askotxo batu izan da Santa Ageda bezperaren bueltan; iaz, adibidez, 45 bat lagun elkartu ziren, euriari aurre eginda. Aurten ere ez dute hutsik egingo; atzo hasi zituzten entseguak eta urtarrilaren 31ra bitartean –egun horretan irtengo dira eskean– eguenero batuko dira kultura etxean, 19:00etan.

## Pentsiodunek bainuetxeetara joateko eskaera orriak bete eta udaletxean entrega ditzakete dagoeneko

Bainuetxeetara joateko aukera ere egongo da aurten. Pentsiodunek dokumentu hauek entregatu behar dituzte zerbitzua jasotzeko: nortasun agiriaren fotokopia, hilean jasotzen den pentsioaren zenbateko zehatza, Gizarte Segurantzako afiliatu-zenbakia eta osasun egoeraren adierazpena –oinarrizko gizarte zerbitzuetan dago eskuragarri–. Bi txanda egongo dira: otsailetik abuztura –izen-ematea urtarrilaren 16ra arte– eta irailetik abendura –maiatzaren 18ra arte. Argibide gehiago, udaletxean: 945-44 50 16.

ELGETA

# Gabonetatik bueltan, hainbat ekitaldi aukeran

## Udalak jakinarazi du apirilaren 19an (domeka) izango dela Intxortako borrokaldien errekreazioa

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Joan dira Gabonak eta etorri da urte berria. Ekintzaz eta hitzorduz betetako egunak izan dira, baina jendea egunerokora itzuli da.

Urteroko bisita Mizpirualde egoitzara, musika ikasleen Gabonetako emanaldia, jostailu truke azoka, Olentzeroren etorrera, Gabon kantuak, Gabonetako haur parkea, DJ jaialdia... gaztetxoendako izan dira ekintza gehienak, eta oraindik ere badaude itxi barik daudenak. Esate baterako, umeen pilota txapelketako finalak eta marrazki lehiaketako sari banaketa. Aste bukaera honetan egingo dira biak.

**Intxortako errekreazioa**

Urte berrira begira lotuta daude zenbait ekintza. Urtarrilaren 20rako iragarri dute, aurten ere, San Sebastian kofradiako nobleen urteroko ekitaldia.

Udalak, bestalde, aditzera eman du Intxortako borrokaldien errekreazioa apirilaren 19an izango dela. Aurrekoetan moduan, herritarrak behar dira antzezpena egiteko. Iaz, 120 boluntariok hartu zuten parte. Zabalik dute izen-ematea udaletxean.

### Sari banaketa liburutegian

Gaur, barikua, banatuko dituzte Udal Liburutegiak antolatutako II. marrazki lehiaketako sariak. Epaimahaiak Amaiur Guridiren eta Uxue Gallastegiren marrazkiak saritu ditu. Sari banaketa 16:30ean izango da, liburutegian.



Jokin Zeziaga eta Unai Fraile, Gabonetako haur parkean, jolasean. | L.Z.



Zaindu beharreko zirkulazio-arau berria; ezin da ezkerrera hartu. | L.Z.

## Amaitu dituzte erdigunean zirkulazioa antolatzeko lanak

L.Z. | ELGETA

Itxura berria du Elgetako erdiguneak. Udalak egin ditu lanak Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantzazioarekin, automobilen abiadura moteltzeko eta oinezkoen segurtasuna garantizatzeko. Urtea amaitu aurretik bukatu zituzten lanak, nahiz eta semaforo sistemaren sinkronizazioak zenbait buruhauste eragin duen. Udalak jakinarazi duenez, eguaztenean konpondu zituzten arazoak.

**Aldaketa nabarmenak**

Hain zuzen ere, bi zebra-bide berri daude erdigunean, pibote bidez mugatutako oinezkoendako bidea dago Malaperaino, espaloiak zabaldu egin dituzte eta autoendako txandakako zirkulazioa dago ezarrita.

**Eibartik biribilgunera**

Autoen zirkulazioari dagokionez, bada berrikuntza bat ohitura aldaketa garrantzitsua eskatuko duena: debekatuta dago, aurrerantzean, Eibartik etorri eta ezkerrera hartuta zuzenean arkuan sartzea. Bestela esanda, Kataiko arkuan sartzeko, gidariek eskumara egin behar dute, kiroldegiko biribilgunean itzulia egin, eta semaforoak baimendutakoan erdigunean sartu.

### OHARRAK

**HAURRESKOLA**

Zabalik dute izen-ematea hilaren 16ra arte. Arreta ordutegia: 09:00etatik 11:00etara.

**ANJE DUHALDE DOMEKAN**

Emanaldia kafe antzokian izango da, 19:00etan. Sarrera 12 euro da; aurrez, 10 euro.

**MONIKA GUECH ELGETAN**

*La Voz* saioko abeslaria hilaren 16an, barikua, izango da Espaloian. Sarrera 6 euro da; aurrez, 5 euro.

**AUTOBUSA BILBORA**

Zapatuan Bilbon egingo den manifestaziora joateko 16:00etan abiatuko da autobusa herriko plazatik.

## Aurtengo pilotari onenak txapelarekin

Helduetan, aurten, Alberto Telleriak, Anjel Ibarluzeak, Ibon Untzetabarrenetxeak eta Mikel Beretxinagak jantzi dute txapela. Urtezahar egunean jokatu ziren bi finalak. Umeen finalak etzi, domeka, jokatuko dira, 11:00etan. Herriko pilota txapelketa amaitu ostean, areto-futbol txapelketak hartuko du, laster, lekukoa.



L.Z.

LEINTZ GATZAGA

# Biharko manifestaziora joateko autobusa egongo da

## 15:00etan irtengo da udalerritik, eta, lekurik libre geratzen bada, Eskoriatzakoekin osatuko dute

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Atzo, eguena, 44 lagunek izena emanda zuten Sare ekimenak deituta Bilbon egingo den manifestaziorako autobuserako, Labidean. Edozein modutan, eta azken orduko interesdunik badago, Labideara jo dezake izena ematera edo autobusarengatik galdetzera.

Izan ere, gatzagarrekin bakarrik autobusa betetzen ez bada, Eskoriatzakoekin osatuko dute. Horrenbestez, komeni da ahalik eta lasterren izena ematea.

Autobusa bera 15:00etan irtengo da Leintz Gatzagatik, eta manifestazioaren ostean bueltatuko da.

**Jendetsua**

Sare mugimenduak deitutako mobilizazioa bera, berriz, 17:30ean abiatuko da, Bilboko bi puntutatik: udaletxetik eta Casillatik. *Now Euskal Herrira!* da manifestazioaren leloa. Euskal presoen, iheslarien eta deportatuen eskubideak aldarrikatu gura dituzte mobilizazio horren bitartez.

Eta azken urteotan moduan, biharko mobilizazioa ere jendetsua izango dela espero dute antolatzaileek. Ikusi besterik ez dago Debagoieneko udalerrietatik hara joango den herritar kopurua.

Leintz Gatzagari dagokionez, esanguratsua da, duda barik, halako udalerri txiki batetik ia autobus osoa betetzea.

LEINTZ GATZAGA

### 2015eko aurrekontuen gaia lantzen dihardu Udal Gobernuak

Gabonen ostean ohiko martxa hartzen hasita, Udal Gobernuak mahai gainean dituen gaien artean 2015erako aurrekontuak daude. Gobernuaren nahia da ahalik eta lasterren zehaztea Udalak 2015erako izango duen diru kopurua, eta hil honetan bertan gurako lukete osoko bilkura egin, amaiera aldera.

# Banaka edo taldeka, kirolez busti da Gabonetan bailara



Herri lasterketak, xakea, futbola eta eskubaloia protagonista, besteak beste

**M.T./J.B.** | ARRASATE

Federatutako taldeen ohiko saioez gain, Gabonetan beste hainbat izan dira aurten. Adibidez, geroago eta parte-hartze handiagoa duten herri lasterketak daude. Aurten, esaterako, San Silvestre lasterketak izan dira Oñatin, Bergaran eta Eskoriatzan. Bergarakoa lehenengoz antolatu dute, trail eran, eta, izan duen parte hartzea ikusita –250 bat lasterkari–, ez litzateke harritzekoa izango antolatzaileek datorren urtean ere errepikatzea.

XIV. Arrasate Hiria xake txapelketa Alejandro Francok irabazi du aurten ere; 12 urteko Cyrus Low singapurtarrarekin lehia estuan ibili arren, azkenean, Francorendako izan zen txapela. Asier Etxagibel arrasatearra hirugarren geratu zen. Banakako kirolekin jarraituz, Jonathan Perez pertika jauzilari arrasatearrak bost metroko saltoa egitea lortu zuen berriro. Bestalde, Xabier Gartzia karateka oñatiarrak gerriko beltza jantzi zuen Erandion.

Pilotan, berriz, aipatu beharra dago Ander Etxaniz bergararra onena izan zela Gipuzkoako taldeen arteko errendimendu txapelketan. Futbolari dagokionez, Mojategin jokatutako Txelisen eta Ibarran jokatutako Bixente Etxeandiaren omenezkoez gain, Arizmendik antolatutako txapelketan goi mailako taldeak izan ziren Ibarran. Debagoieneko Selekzioak ezin izan zuen ezer egin Realaren (0-4) eta Athleticen aurrean (0-8); txapelketa zuri-gorriek irabazi zuten txuri-urdinen aurka jokatutako finalean (2-0). Eskubaloian, berriz, Euskal Kopako finalerdia jokatzera etorri zen Bidasoa Iturripera, Ford Mugarriren aurka jokatzeko. Pablo Gartziaren mutilak azkenera arte lehiatu ziren, baina ezin izan zuten ezer egin (20-27). Giroa bero-bero egon zen Iturripeko harmailetan.

Saskibaloirik ere ez da falta izan Gabonetan; Laboral Kutxaren VII. txapelketa Easok irabazi zuen. MUk jokatutako bi partiduak galdu zituen Clavijoren (67-77) eta Getaferen (61-77) aurka, hurrenez hurren.


















01 **ATHLETIC GARAILE** Athleticek 2-0 irabazi zion Realari finalean, Arizmendik hamargarren urtez antolatutako Gabonetako Emakumeen Futbol Txapelketan.

02 **400 NESKA-MUTIKO, FUTBOLEAN** Bixente Etxeandia Torneoak aurten ere inguruetako gazte ugari bildu ditu.

03 **SAN SILVESTRE PROBA** Yeray Varela eta Miren Bikuña izan dira onenak Oñatiko lasterketan.

04 **ANDER ETXANIZ TXAPELDUN** Gipuzkoako errendimendu txapelketan eta Ander Etxaniz izan zen txapeldun, bigarren urteko infantil mailan.

05 **PILOTARIEN HARROBIA** Bergarako Gabon Sarian 22 neska-mutikok hartu dute parte, harrobiaren indarra erakutsita.

06 **GAZTEEN VI. HIRUKOA** Kirolaz gozatuz, 43 talde aritu dira hiruko saskibaloian. Lehian bai, baina giro ezin hobean.

07 **JONATHAN PEREZ** Bost metroko pertika saltoa egin zuen atleta arrasatearrak Donostiako Belodromoan.




















**08 NAZIOARTEKO XAKE JOKALARIAK** Alejandro Franco madrildarrak eskuratu du txapela aurten, Singapurko Cyrus Lowekin lehia estuan ibili arren. Asier Etxagibel arrasatearra hirugarren geratu da.

**09 INFANTIL MAILAKO NESKAK SASKIBALOIAN** Bergara KEk antolatuta, Bergarako, Eskoriatzako, Andraitzeko, Easoko eta Urretxuko neskak aritu ziren norgehiagokan, besteak beste.

**10 GERRIKO BELTZA** Aloña Mendiko Xabier Gartzia karatekak gerriko beltza lortu zuen Erandion.

**11 EZIN BIDASOAREKIN** Ford Mugarrik Euskal Kopako finalerdietan galdu egin zuen Bidasoaren aurka (20-27). Ohi baino giro beroagoa izan zen Iturripeko harmailetan.

**12 EASO GARAILE** Donostiako taldeak irabazi zuen Laboral Kutxako VII. txapelketa Iturripen.

**13 BERGARAKO LEHENA** San Silvestre Trail lasterketa antolatu zuten lehenengoz Bergaran. 250 bat korrikalarik hartu zuten parte.

# Lidergoa sendotzeko aukera du UDAk, bigarren sailkatua dator-eta

**J.B.** | ARETXABALETA

Denboraldian zehar erabakigarriak izaten diren partiduetako bat jokatuko du Aretxabaletak (37 puntu) domekan (Ibarra, 16:30). Bigarren sailkatua dator, Aurrera Ondarroa (36). Ondarroako taldea da aretxabaletarren antzeko emaitzak lortu dituen talde bakarra. Horregatik, Gorka Valleren mutilek garaipena lortzen badute, lau puntuko aldea lortuko lukete eta beraz, aurrerapauso handia izango litzateke Hirugarren Mailara bueltatzeko bidean.

Etxean jokatuko duen Debagoieneko beste taldea Antzuola (7 puntu) izango da; Real Union (23) hartuko dute bihar (Estala, 16:00). Jon Muruamendiaraz eta Ekain Garinen mutilak azkenak dira sailkapenean eta lehenbailehen hasi beharko dute garaipenak eskuratzen –bakarra lortu dute denboraldi osoan–, Erregional Preferente mailarako bidea hartzea ez badute nahi. Puntu asko dago jokoan, baina partidu bakoitza final bihurtu da dagoeneko antzuolarrendako. Bergarak (19 puntu) eta Aloña Mendik (17) kanpoan jokatuko dute, Martutene (25) eta Touring (21) taldeen aurka, hurrenez hurren.

**Josu Zubia Mondrara itzuli da**

Bestalde, Mondrak entrenatzaile berriarekin hasiko du urtea. 2002-2003 denboraldian Mondra Ohorezko Mailara igotzea lortu zuen Josu Zubiak lehen partidua gidatuko du domekan Mutrikun (16:00). "Oso gogotsu" itzuli da etxera Zubia. Zorte on!



UDAko Iban Espinosa Bergararen aurka jokatutako derbian. | JOSETXO ARANTZABAL

## ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

**FUTBOLA**

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Antzuola-Real Union
Zapatua. 16:00. Estala.
Aretxabaleta-Aurrera
Domeka. 16:30. Ibarra.
Martutene-Bergara
Zapatua. 18:00. Martutene.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Mutriku-Mondra
Domeka. 16:00. Mutriku.
Aretxabaleta B-Zumaiako
Zapatua. 16:00. Ibarra.

**LEHEN ERREGIONALA**
Arizmendi-Soraluze
Zapatua. 17:45. Ibarra

**OHOREZKO GAZTEAK**
Aurrera-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Ondarroa.
Tolosa-Aretxabaleta
Domeka. 11:45. Tolosa.
Mondra-Burumendi
Zapatua. 16:00. Mojategi.
Eibar-Bergara
Domeka. 15:30. Unbe.

**EMAKUMEZKOEN ERREG.**
Mondra-Oiartzun
Domeka. 12:00. Mojategi.
Arizmendi-Eibar
Domeka. 12:30. Ibarra.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKAL LIGA**
Eraso Aiara-Eskoriatza
Zapatua. 18:00. Amurrio.

**GIPUZKOAKO LIGA**
Aretxabaleta-Tellatuberri Zaldibi
Zapatua. 11:00. Ibarra.

**BIGARREN MAILA**
Mondrate-Ataun Troskaeta
Zapatua. 20:30. Iturripe.

**GAZTE MAILA**
Mondrate-Larramendi
Domeka. 12:30. Iturripe.

**ESKUBALOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
Egia Ur-zaleak-Ford Mugarri Arrasate
Zapatua. 18:30. Donostia.

**EUSKADIKO TXAPELKETA, GIZONEKZOAK**
Lau Bide Jatetxea-Bergara
Zapatua. 19:15. Legazpi.

**EUSKADIKO TXAPELKETA, EMAKUMEZKOAK**
Aloña Mendi-Bera Bera
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
Donibane Rueda-Izarraitz Aloña
Zapatua. 18:00. Pasai Donibane.

**GIP. BIGARREN MAILA**
Bergara-Saieko
Zapatua. 16:30. Labegaraieta.

**SASKIBALOIA**

**EBA MAILA**
MU-La Gallofa
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**SENIOR GIZONEZKOAK**
Hotel Gran Bilbao-Natra Oñati
Domeka. 18:00. Bilbo.

**EMAKUMEZKO SENIORRAK**
Askatuak B-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Donostia.

**SENIOR GIZONEZKO 2. MAILA**
MU-Zarautz Sharks
Gaur. 20:00. Musakola.
Donosti Dolphins-Soraluze Bergara
Zapatua. 16:00. Donostia.

**GAZTEAK, ERRENDIMENDUA**
MU A-Tecnum
Domeka. 17:30. Iturripe.

**ESKU PILOTA**

**PROFESIONALAK**
**Bergaran, egubakoitzean:**
22:30ean hasita: Jaunarena eta Tolosa - Mendizabal eta Merino
Ondoren: Bengoetxea eta Aretxabaleta - Retegi Bi eta Rezusta

**FEDERATUAK**
**Antzuolan, egubakoitzean:**
Infantil: Olalde-Ziotza1 (19:00).

**Arrasaten, egubakoitzean:**
Inf: Arrasate2-Txapagain1 (19:30).

**Bergaran, zapatuan:**
Infantil: Bergara-Lapke (16:30).

**Aretxabaletan, zapatuan:**
Infantil: Aretxabaleta-Intxurre 2 (17:00).

# KULTURA

# Espaloia, lehengo bidetik

- Ande Duhalderen kontzertuak zabalduko du aro berria etzi, domeka, 19:00etan
- Afari tematikoak eta merkatu txikiak egiteko ideia ere badute kudeatzaile berriek

**OIHANA ELORTZA** | ELGETA

Lehengo bidea hartu du berriz Elgetako Espaloia kafe antzokiak, eta diziplina askotariko ekintzak antolatu dituzte martxora bitartean. Lehenengoa domekan izango da. Anje Duhalde dator.



Anje Duhalde kontzertua eskaintzen. | GOIENA



JJ Vaquero bakarrizketalaria. | KEDIN.ES



Bikoteak Herrixa Dantzan saioan parte hartzen. | GOIENA



Joaquin Molla eta Chechu Molto aktoreak. | MOISES PEREZ

**Ama-semeak**

Batirtze Arantzabalek eta haren semeak kudeatzen dute orain Espaloia. Ilusio handia dute eta lanerako gogoa ere bai, baina urduri ere badaudela onartu du Arantzabalek: "Ostalaritzan badut esperientzia, baina inoiz ez dut programazio bat antolatu. Are gutxiago, hain maila altukoa. Izan ere, gure aurretik egon direnek lan ona egin dute, ekintza asko antolatu dituzte, eta maila altua da. Horrek jartzen gaitu pixka bat urduri, antolatzen jakiteak. Saiatu gara maila horren parean hasten, eta, izan ditugun gorabeherak kontuan hartuta, uste dut egitarau polita prestatu dugula martxora bitarterako. Udalak ere lagundu digu, eta eskertzekoa da hori. Dagoeneko hasita gaude apiriletik aurrerako ekintzak prestatzen ere".

Ardurak ardura, baina, lanerako gogoz daude ama-semeak. "Ez dugu ilusioa bakarrik, beharra ere bai. Beraz, lanerako gertu gaude", dio Arantzabalek.

**Ideia berriekin**

Hala, antolatu ahal dituzten musika edo antzerki ikuskizunez gain, ideia berriak ere badituztela aurreratu du Batirtze Arantzabalek: "Esaterako, Herrixa Dantzan ekimenekoekin berba egin dugu eta adostu dugu ekitaldi hori egiten denean afari tematikoak egingo ditugula; hau da, egiten dituzten dantzen jatorrizko herrialdeetako janariak prestatuko ditugu. Bestalde, merkatu txikiak antolatzeko asmoa ere badugu".

Ekintzekin batera, taberna zerbitzua ere eskainiko du aurrerantzean Espaloiak. "Eguneko menuak ez ditugu ematen, baina afariak bai, esaterako. Plater konbinatuak ditugu", dio Batirtze Arantzabalek.

Taberna zerbitzu hori, hain zuzen ere, garrantzitsu ikusten dute Espaloira doazenek. Bakarrizketen zikloa antolatzen dutenek, esaterako. "Ikuskizun mota horretarako oso toki aproposa da Elgetako Espaloia. Aulkiak aurrean jarrita oso giro polita sortzen da, gertu daude ikus-entzuleak. Gainera, saioen arteko atsedenaldietan jendeak aukera du komunera, erretzera edo edatera joateko. Gu oso gustura joaten gara", dio Gasteizko Ttipia Kultura enpresako Asier Alvarez de Arkaiak.

**Duhalde**

Otsaileko azken asteburuan eta martxoko lehenengoan izango dira bakarrizketak Espaloian. Aurretik, baina, musika, antzerki eta dantza eskaintzak ere egongo dira. Asteburu honetan, domekan, izango da lehen ekitaldia. Anje Duhaldek zabalduko du Espaloiaren aro berriaren programazioa. Elgetako Udalak antolatu duen kontzertua izango da eta domeka iluntzean izango da, urtarrilaren 11n, 19:00etan. Sarrerak leihatilan bertan eros ahal izango dira, 12 eurotan. Aurrez, berriz, bi euro gutxiago.

## Bakarrizketak, egubakoitzetan berriz

Bakarrizketak ere antolatu dituzte lehen hiruhileko honetarako. Aurreko urteetan bezala, Gasteizko Ttipia Kultura enpresaren laguntzarekin ekarriko dituzte. "Egia esan, gero eta zailagoa egiten zaigu kartel erakargarria antolatzea, baina aurten ere lortu dugula uste dut. Hiru aukera antolatu ditugu aurten. Batetik, JJ Vaquero eta Iñaki Urrutia datoz. Urrutiarena, esaterako, barre egitekoa izango da; oso ona. Bestalde, Quequek ikuskizun berria ekarriko du eta gitarra jotzen duen laguntzaile bat izango du ondoan. Betiko abestiak joko dituzte. Azkenik, Euskal Herriko hirukote bat: Asier Hormaza, Maribel Salas eta Gemma Martinez. Aktoreak dira hirurak eta antzerki kutsu hori nabarituko da euren bakarrizketetan ere", aurreratu du Asier Alvarez de Arkaiak.

Aurten, gainera, egubakoitzetan eta zapatuetan izango dira saioak. "Ikusi dugu domeketan jende gutxiago joaten dela, eta horregatik erabaki dugu egubakoitzetara bueltatzea", dio Ttipia Kulturako Alvarez de Arkaiak.

## URTARRILEKO EGITARAUA

**11, DOMEKA**

**19:00** Anje Duhalde. Sarrera: 10 euro aurretik, 12 euro leihatilan

**16, EGUBAKOITZA**

**22:30** Monika Guech. 5/6 euro

**23, EGUBAKOITZA**

**22:30** *Maratón a Nueva York* antzezlana. Sarrera: 12 euro

**24, ZAPATUA**

**22:30** Eibar Kantuan. Musika eskolako mariatxia. Sarrera: 8/10 euro

**25, DOMEKA**

**22:30** Herrixa Dantzan. Doan

**30, EGUBAKOITZA**

**22:30** Emon eta Patxuko Nice. Sarrera: 6 euro.

**31, ZAPATUA**

**22:30** Eibar Kantuan. Trio Medianoche. Sarrera: 10/12 euro.

GORBEIAKO
BEHERAPENETAN
GEHIAGO IRABAZI

SARTU WEBGUNEAN
centrocomercialgorbeia.com
ETA IRABAZI
1.000€
EROSKETA-TXARTELETAN

Promozioarekin bat egin duten Gorbeia Merkataritza Guneko saltokiren batean 10 euro edo gehiagoko erosketa egin promozioa indarrean den bitartean, sartu webgunean eta eman izena. Erosketa-baleetan 200 euroko bost sariren zozketan hartuko duzu parte.

Oinarri guztiak *centrocomercialgorbeia.com* webgunean

Promozioa indarrean izango da 2015eko urtarrilaren 7tik 31ra arte

GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com

Carrefour | Gorbeia | DECATHLON | Norauto | BRICO DEPOT | I'm lovin' it | merkal calzados | CIMER el outlet del electro | BOOM | CORTEFIEL | Asian center | Mr. Wok asian bistro | Carrefour Viajes | Martínez de Quel




Aretxabaleta epaitu zuten toberan, kabaret itxura hartuaz; elkarrekin gustura dantzan bukatu zuten. | IMANOL SORIANO

# Laugarren toberak emandakoarekin, antolatzaileak eta ikusleak gustura

Aretxabaletak Kurtzebarrin Eskoriatzako bandera haizatzea eta Arabako etorbideari Eskoriatzako etorbidea izena jartzea dira bete beharreko zigorrak

A. ARANBURUZABALA | ARETXABALETA

"Eskoriatzarren aurka nagusikeriaz eta umiliazioz jarduteagatik errudun da Aretxabaleta". Hori izan zen abenduaren 28an Aretxabaletako Ibarra kiroldegian egin zuten Bagara Herrigintzak bultzatutako laugarren toberan On Prudentzio Piperrauts epaileak hartu zuen erabakia.

Data zehatzik ez badute ere, aretxabaletarrek epaia bete beharko dute orain, eta honako hauek dira hartu beharreko konpromisoak: batetik, irailean ospatzen den Kurtzebarri egunean Eskoriatzako bandera haizatu beharko dute kalte-ordain modura. Eta bestetik, Aretxabaletako Araba ibilbidea izena aldatzeko agindua ere eman zien epaileak; aipatutako kalean, bada, Eskoriatzako ibilbidea dela adierazten duen kartela jarri beharko dute.

**Arrakastaz, zentzu guztietan**

Debagoiendar askorentzako *derrigorrezko* bihurtu da tobera antzerki satirikoaren emanaldira joatea. Horren erakusle da Aretxabaletako kiroldegia goraino bete zela. Ikusleen artean, aretxabaletarrak eta eskoriatzarrak gehienak; baina baziren ibarreko beste herri batzuetatik joandako asko ere.

Tobera oso musikala izan zen –kabaretarekin hasi eta bukatu zen–, eta baita dibertigarria ere, esketx bikainekin eta antzezpen txalogarriekin osatutakoa. "Antzerki kontuetan aurrez eskarmenturik ez duen jende mordoak buru-belarri jardun du aurten ere. Taularen gainean erakutsi zuten maila handia izan da, eta are handiagoa izan duten inplikazioa", diote Bagaratik, eta zera gaineratu dute: "Antzerki herritarra eta herrikoia da tobera; horregatik, bada, horien guztien lana eskertu gura dugu Bagaratik: aktoreena, gidoilariena, bestelako antolaketa lanetan jardun dutenena, argazkilariena, jatorduak prestatu dutenena... Era berean , eskertzekoa da Aretxabaletako Udalak eta Goienak emandako laguntza ere; eta nola ez, bertaratu ziren ikusleei ere, eskerrik asko! Jendeak ondo pasatu zuela ikusi genuen eta horrela adierazi ziguten askok, ez da gutxi, bada, euskaraz eta umorez egindako antzerkiarekin beste arrazoi batzuk lapurtzen dizkiguten irribarrea, une batez bada ere, berreskuratzea lortu badugu oraingoan ere".

Aurrekariak ikusita, pentsatzekoa da etorriko dela bosgarrena; aldez aurretik, baina, laugarrenaren karpeta itxi behar da.

# Klak!son, Eskean Kristo eta Warsong, urtarrileko Kooltur Ostegunetan

Antzuolako, Arratiako eta Zaragozako musika taldeak izango dira Arrasateko gaztetxean

A. A. | ARRASATE

Kooltur ekimenaren bosgarren edizioak aurrera segitzen du. Atzo ireki zuten urte berriko egitaraua Gasteizko Libe eta bere taldekideekin. Orain arte moduan, eguenero, askotariko estilo eta jatorrietako artisteekin gozatzeko aukera izango da Arrasateko gaztetxean, bost euroren truke.

**Urtarrilaren 15ean, Klak!son**

Etiketatzeko zaila, iturburu askotatik edaten duena eta zuzenean ikusteko aukera handirik ematen ez duen Antzuolako Klak!son taldea igoko da datorren eguenean Arrasateko gaztetxeko agertokira.

Pop-rockak, post-rockak psikodeliak, rock gitarreroak... estilo askok dute lekua euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz kantatutako abestietan. "Freskotasun handia dute; oso kritika onak jaso zituzten 2011n autoekoiztu zuten *Zai at Devo City*-rekin", diote antolatzaileek.

**Eskean Kristo, hurrengoan**

Orain gutxi kaleratutako *Azote kalduz* diskoarekin etorriko da hirugarren eguenean, Arratiako Eskean Kristo taldea. "Beste talde batzuetan ibilitako musikariak badira ere, talde gaztea da. 70eko hamarkadako musika taldeen hard-rock espiritua berreskuratzen saiatzen dira. Zuzeneko indartsua dute. Banden lehiaketa irabazi zuten eta horri esker diskoa grabatu zuten. Asko ari dira jotzen", dio Iker Barandiaranek, Kooltur Ekimenak taldeko kideak.

**Urtarrilaren 29an, Warsong**

Zaragozako Warsong taldeak borobilduko du urtarrileko egitaraua. Hardcore-punk, punk-rock estiloa duen taldea bigarren diskoa ari da orain prestatzen. "Eskarmentu handiko musikariak dira, atzerrian sona handia duen taldea da. Aukera eman digute eta gurean izango dira", dio Barandiaranek.



Antzuolako Klak!son taldea. | KLAK!SON

# Jardunen Amodiozko Gutunen Lehiaketan inoiz baino lan gehiago jaso dituzte aurten

87 lagunen idatziak daude eta otsailaren 13an jakinaraziko dute irabazlea

A. A. | BERGARA

Jardun elkartekoak pozik daude Amodiozko Gutunen Lehiaketan jasotako uztarekin: "Inoiz baino gehiago jaso ditugu, eta, orain arte ez moduan, gizonezkoek idatzitako gutun asko daude horien artean", esan du Jarduneko Maitane Aritzabaletak, eta zera gaineratu: "Beldurrez izaten gara, lanak entregatzeko epea amaitzeko bezpera arte apenas heltzen zaigu-eta lanik. Aurten ere hala izan da, baina jasotako 87 lanek erakutsi dute lehiaketak oihartzuna duela Euskal Herrian".

**86 gutun lehiatuko dira**

Eguaztenean itxi zuten 23. lehiaketako postontzia: guztira, 87 dira jasotako gutunak, baina, horietako bat ingelesez idatzitakoa denez, lehiaketatik kanpo utzi dute.

Jatorriari begiratuta, Gipuzkoatik jaso dituzte gehienak (63), Nafarroatik (9), Bizkaitik (8) eta Arabatik (6). "Aipagarria da Nafarroako datua; iaz ez genuen batere jaso", diote, pozik, antolatzaileek.

Bidaltzaileei dagokienez, 62 gutun emakumeek idatzitakoak dira eta gainontzeko 24ak, gizonek idatzitakoak.

**Otsailaren 13an sari banaketa**

San Valentin egunean dute sariak banatzeko ohitura; aurten, baina, Inauteri-zapatua dela-eta, bezperan banatuko dituzte, kultura etxean, 19:00etan.

Urko Egaña bertsolariak, Maite Toledo idazleak, Fran Urias Hesianeko abeslariak eta Amaia Artola iazko irabazleak erabakiko dute nori eman saria. Epaimahai gaztea, aldiz, Ipintzako eta Aranzadiko Batxilergoko ikasleek osatuko dute. Ondo idatzita egoteaz gain, barrenak mugitzeko gai izan beharko du irabazleak.

## Bergarako gaztetxean izandako lapurreten kalteak konpontzeko, Ain-1 taldearen kontzertua gaur

Abenduan kaleratu zuten *Badoa, badirau* diskoa aurkeztuko du Ain_1 taldeak gaur, egubakoitza, Bergarako kartzela zaharrean (22:30). Pop musika akustikoa egiten du Arrasateko eta Bergarako lau kidek osatutako taldeak, eta bi lan luze dituzte kalean. Kideen esanetan, lan heldu eta prestatuagoa da honako hau. Taldea osasuntsu dago, baina laster lozorroan sartuko da denboraldi baterako. Sarrerekin batutako dirua gaztetxean izandako lapurretek eragindako kalteei aurre egiteko erabiliko dute.

## 'Unfit': pop elektroniko doinuekin osatutako Aitor Osuna bakarlariaren lehenengo lana kalean da

Oñatin bizi den Donostiako musikaria da Osuna. Oñatiko musika eskolan piano eta kantu ikasketak egin ondoren, abenduan kaleratu zuen, bakarlari moduan, *Unfit* estreinako lana. Ingelesez abestutako eta kutsu malenkoniatsua darien pop estiloko kantuekin osatutako bilduman, askotariko musikarien eraginak nabaritzen dira, Madonna eta Björk dira, besteak beste, Osunak aipatutakoak. Arkupen eta Oñati tabernan 5 eurotan eskura daiteke Osunaren *Unfit* lana.

# 'Loreak', film onenaren Goya sarirako hautagai

## 'El Niño', 'La isla mínima', 'Relatos salvajes' eta 'Magical girl' filmak izango ditu lehiakide

**MAIALEN TORRES** | DEBAGOIENA

*Loreak* filmak bi izendapen jaso ditu Goya sarietarako, film onenaren sailean bata, eta soinu banda onenarenean bestea. Lehen aldia da, gainera, euskal film batek film onena izateko izendapena jasotzen duela; beraz, *Loreak*-eko lantaldeari ez zaio pozik egoteko arrazoirik falta. Aitor Arregi gidoilarikide eta ekoizleak hala aitortu du, eta esan du izendapena bera "sari kolektiboa" izan dela, filmaren osotasuna eta talde guztiaren lana saritzen dituelako.



*Loreak* filmeko aktore eta zuzendariak, Zinemaldian. | HARITZ DENDATEGI

Arregik zuzenean izan zuen izendapenaren berri, *streaming* bitartez jarraitu zuen-eta guztia. Izan ere, bazuten izendapenen bat lortzeko esperantza. "Aspalditik jarri genuen *x* bat egutegian, urtarrilaren 7an", dio Arregik. Eguaztenean, hasierako urduritasunaren ostean iritsi zen albistea: "Goya sarietan bi izendapen lortu ditugu eta hori guretzako asko da. Berria ezin da hobea izan".

Dena den, "pena" ere badute, aktoreek izendapenik jaso ez dutelako. Arregiren ustez, ordea, izendapenak bi sailetan jaso arren, "beste hainbatetan oso gertu eta lehia estuan ibiliko zen" *Loreak*. Izan ere, ez da oso ohikoa film onenaren izendapena jasota beste sailetan izendapen bakarra lortzea. *Loreak*-en aldean, *La isla mínima* hamazazpi sari jasotzeko izendatu dute, esaterako, eta *El Niño*, berriz, hamasei sailetarako.

"Pausoz pauso bizi izan dut filmaren bilakaera", esan du Arregik. Lehen urratsa Zinemaldian egin zuten, azken 25 urteetan lehen aldiz euskara hutsean egindako film bat sail ofizialera iritsi zenean. "Orduan finkatu genuen lehen mugarria", azaldu du Arregik. Jon Garañok eta Jose Mari Goenagak zuzendutako filmak txartel-leihatiletan izan du hurrengo arrakasta. Hamaika aste daramatza zinema aretoetan, eta 50.000 ikuslek baino gehiagok ikusi dute. Hain zuzen, horixe da Arregik azpimarratu nahi izan duen beste pausoetako bat. "Jendeari gustatu egin zaio, txartel-leihatilan funtzionatu egin du, eta ikusleen aldetik jaso dugun erantzuna oso polita izan da", dio. Goya sarietako izendapenak beste pauso bat izan dira Arregirentzat, baina euskal zinemari dagokionez mugarri bat izan zen eguazteneko albistea.

Euskal zinema "mapan kokatzen" laguntzeaz gain, Moriarti eta Irusoin ekoizpen-etxeentzat ere bultzada handia izan dela uste du Arregik. Otsailaren 7an datorrena datorrela, ospatzeko moduko emaitzak izan ditu, beraz, orain arte egindako lanak.



Los Galerna, Amsterdamgo Maloe Melon. | ANDER MONEDERO

# Asier Sala eta Los Galerna, Debagoienetik Europara

## Errusian izan da gaztea Bad Co taldearekin eta arrasatearrek Amsterdamen hasi dute urtea

**MAIALEN TORRES** | DEBAGOIENA

Bad Co. Project taldearekin izarren pare ibili da Asier Sala Errusian zehar. Hiru kontzertu eskaini dituzte guztira, eta batetik besterakoetan promotore baten laguntzaz mugitu dira. "Beti izaten genuen furgoneta bat zain, eta kontzertuen amaieran zaleek argazkiak ateratzeko geratzen gintuzten", gogoratzen du.

San Petersburgon jo zuten lehen kontzertua, eta esperientzia "ona" izan bazen ere, Moskutik gertu dagoen Riazan herrian sentitu ziren gusturen. Herri txikiagoa izanik, "familia giroan" egon zirela esan du Salak, eta ikusleak "hurbil" sentitu zituztela. Moskun eman zioten amaiera birari, kontzertu "garrantzitsuenarekin", eta Rock House klubean 700 pertsonaren aurrean jardun zuten.

Aurrera begira, berriz, Salak dio Bad Co. Project taldekoekin elkarlanean jarraituko duela, gitarra-jotzaileak taldea utzi egin du-eta. Gauzak horrela, maiatz eta ekain inguruan Alemaniako hainbat jaialditara eurekin joatea espero du, baita taldea Arrasatera eta ingurutara ekartzea ere.

### Los Galerna, Amsterdamen

Gabon zahar gauean, berriz, Los Galerna taldeko mutilak Amsterdamgo Maloe Melo tabernan izan ziren, goizaldeko lauretara arte luzatu zen kontzertua eskaintzen. Taldeko kide Jagoba Domingok azaldu duenez, gustura onartu zuten "taberna mitikoan" jotzeko aukera, duela 30 urte inguru ireki zenetik Maloe Melo punta-puntako blues musikarien agertoki izan da-eta. Inguruneaz gain, kontzertua ere "berezia" izan zen Los Galernakoentzat, 45 minutuko hiru tartetan 38 kanta jo zituzten-eta, "ohi baino kontzertu luzeagoa" eskainita.

Handik itzuli, eta disko berria grabatzeari ekin diote Bilbon, Silver Soundseko Martin Gebaren laguntzaz. The Cavernaries Mexiko DFko taldearekin elkarlanean sortutako diskoa izango da. Zuzenean eta taldekide guztiek batera egin dute grabazioa eta lortutako soinua "gordina" eta "punk kutsukoa" dela esan du Domingok.

---

**Marta Izagirre** | Arrasate Musikaleko zuzendaria

# "Eskolako bandak bi helburu izan ditu beti: ikasleak eta herriko musikazaleak"

## Arrasate Musikaleko banda egonkortuta dago, urrats txikiak eginda 20 urteotako ibilbidean



Marta Izagirre. | A. ARANBURUZABALA

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE

Urtero moduan, Amaia Udal Antzokian kontzertua eginda borobildu zuen Arrasate Musikalek 2014a. Zentzu berezia zuen oraingoak: musika eskolako bandaren 20. urteurrena ospatzea.

**Zelan joan zen urteko azkenekoa?**

Eskolakoendako oso hunkigarria izan zen. Garai baten bandan ibilitako hainbat lagunek ere jo zuten, gaur egungo kideekin batera; horien artean zeuden orain dela 20 urte bandaren lehenengo kontzertuan izan ziren batzuk ere. Bide batez, horietako batzuk gaur egun musikari profesionalak dira. Zuzendariei dagokienez, belaunaldi bi batu genituen: gaur egungo zuzendari Mikel Markiegik zuzendu zuen emanaldiaren zati bat eta eskolako bandaren lehenengo zuzendaria izan zen Jose Ramon Vitoriak, berriz, beste erdia.

**Antzokia lepo bete zenuten.**

Herritar askoren agendetan gordetako hitzordua da, bai. Sarrera doakoa den arren, edukiera kontrolatzeko txartelak ateratzen ditugu, eta oraingoan ere guztiak agortu ziren. Eskerrik asko!

**Herrian ez dago udal musika bandarik; modu baten esanda, bada, zuenak betetzen du haren lekua.**

Ba, akaso, bai. Herriko jai eta ekitaldietan parte hartzen dugu: Inauterietan, San Juan jaietan... Izan ere, gure bandak bi helburu nagusi ditu: pedagogikoa da bat; hau da, ikasleei talde batean parte hartzeko aukera ematea. Eta, bigarrena, berriz, herriko musika eskaintzan osagarri izatea.

**Banda jaio zenean, irakasle zinen ordurako eskolan.**

Bai; hala da; gogoan dut Jose Ramonek gogo handia zuela banda sortzeko, 20 urte ziren-eta udal banda desagertu zela. Eskolari falta zitzaion hanka zen banda, orkestra sinfonikoa bazegoen-eta. Hasiera gehienak bezala, gogorra izan zen, musika tresna asko falta zitzaizkigun; poliki-poliki taldea osatu genuen. 1993ko sanjuanetako errementari-dantzan haize-talde txiki batek parte hartu zuen, bandako enbrioia izango zena. Bandaren lehenengo emanaldia 1994ko Gabon zaharretan izan zen.

**Atera egiguzu gaur egungo bandaren argazkia.**

Haize-musika tresnek osatzen dute banda. 60 lagun inguru dira, askotariko adinetakoak, 12 eta 60 urte artekoak. Eskolako ikasleak dira gehienak, baina irakasleak ere badaude. Horrez gainera, herriko gaitero eta txistulariekin ere badugu elkarlana.

**Zer eskatuko zenioke 2015ari?**

Poztuko nintzateke Musika Eskolaren eraikinaren proiektuak aurrera egingo balu, eta badirudi horrela izango dela. Eta bestetik, gaur egun ditugun ikasle kopuruarekin jarraitzea.

## ZORION AGURRAK



ARRASATE
**Irati Zaitegi Manzanas**
Urtarrilaren 13an, 8 urte. Zorionak, Irati! Oso ondo pasatu zure urtebetetzea, maitia! Alaitzen, aitatxoren eta amatxoren partetik.



BERGARA
**Elixabete Gabilondo Larrañaga**
Urtarrilaren 9an, 3 urte. Zorionak, neska eder! Patxo handi-handi bat Martinen eta familixa guztiaren partetik.



OÑATI
**Naia Letamendi**
Urtarrilaren 8an, 2 urte. Zorionak, potxola! Jarraitu holako xaladia izaten. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu handi bat etxeko guztion partetik.



ANTZUOLA
**Lide Etxezortu Gabilondo**
Urtarrilaren 8an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiakoen eta bereziki, Imanol, Laida, Oier, Maider, Gari eta Markelen partetik.



OÑATI
**Haizea Lopez Lasa**
Urtarrilaren 7an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure eguna, gurekin eta maite zaituzten guztiekin.



OÑATI
**Naroa Moreno Zubia**
Urtarrilaren 6an, 7 urte. Zorionak, Naroa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo eta besarkada handi bat etxeko guztien partetik. Asko maite zaitugu. Mua!



ARRASATE
**Iker Arenaza Pagaldai**
Urtarrilaren 6an, 11 urte. Zorionak, txapeldun. Ondo pasatu eta muxu pilo bat etxekoen partetik.



BERGARA
**Markel Martinez Garitano**
Urtarrilaren 6an, 7 urte. Zorionak, Markel! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna eta kroketa asko jan. Muxu handi bat guztien partetik.



ARRASATE
**Mikel Aranburuzabala Loiti**
Urtarrilaren 6an, 11 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekuen partetik!



ARETXABALETA
**Laiatz Kintela Uriarte**
Urtarrilaren 5ean, 3 urte. Zorionak, etxeko sorgintxuari! Ondo-ondo pasatu eguna etxeko danen partetik.



BERGARA
**Oihan Zubiaga Ilarduia**
Urtarrilaren 5ean, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta besarkada bana etxekuon partetik. Aupa Athletic!



ARRASATE
**Garazi Nin Ugalde**
Urtarrilaren 5ean, 3 urte. Etxeko Iarrosiak hiru urte. Zorionak, Garazi! Etxeko danen partetik Iaztan handi bat! Ederto ospatu.



ARRASATE
**Ane Aranzabal Vitoria**
Urtarrilaren 2an, 5 urte. Zorionak, printzesa. Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunien. Txokolatezko muxu pila bat familiako guztion partetik.



BERGARA
**Maialen Goikoetxea**
Urtarrilaren 2an, urtebete. Zorionak, prexioxi! Patxo handi bat familia guztiaren partetik eta txokomarrubizko muxu berezi bat Danelen eta Eleneren partetik!



ARETXABALETA
**Nahia Oianguren Lopez de Lapuente**
Abenduaren 31n, 4 urte. Zorionak, printzesa. Dagoeneko lau urte. Muxu handi bat etxeko guztien partetik. Ondo pasatu.



BERGARA
**Marisa Escobar**
Abenduaren 31n, urtebetetzea. Zorionak, amama Marisa! Egun polita pasatzea espero dugu! Zurekin ederki ospatuko dugu. Asko maitxe zaitxugu. Patxo bat Kenarren eta Alainen partetik.



ARRASATE
**Enara Balantzategi Eiró**
Abenduaren 30ean, urtebete. Zorionak, pototo, zure lehenengo urtebetetzian! Patxo handi-handi bat familia guztiaren partetik.



OÑATI
**Aratz Etxeberria Benito**
Abenduaren 30ean, 10 urte. Zorionak, Aratz! Oso ondo pasatu eguna eta muxu handi bat familixaren eta lagun danon partetik!



BERGARA
**Laida Unamuno Lopez**
Abenduaren 29an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetzea eta jaso patxo potolo mordua Zaloaren, aitatxoren eta amatxoren partetik.



ARETXABALETA
**Alazne Negro**
Abenduaren 29an, 4 urte. Zorionak, panpintxo. Ondo pasatu zure laugarren urtebetetzean. Aita, ama, Erlantz eta Marenen partetik.



ESKORIATZA
**Izaro Markaide**
Abenduaren 26an, 11 urte. Zorionak, Izaro. Oso ondo pasatu eguna eta muxu handi bat familixa danaren partetik.



BERGARA
**Ekhi Ormaetxea**
Abenduaren 26an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure bosgarren urtebetetzian. Muxu pilo bat danon partetik. Bereziki Aratzek.



ESKORIATZA
**Jon Cabello Garcia**
Abenduaren 23an, 6 urte. Zorionak, pirata! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu handi bat familiaren, lagunen eta, bereziki, lehengusu eta lehengusinen partetik. Asko maite zaitugu.



ESKORIATZA
**Gaste Atxa**
Abenduaren 23an, urtebetetzea. Zorionak Markaide guztien partetik. Ondo pasatu eguna. Muxu asko.



BERGARA
**Elene eta Oier Uzin**
Elenek 4 urte, urtarrilaren 11n eta Oierrek 8 urte, 16an. Zorionak, Oier eta Elene! A ze parea! Ze handiak jada! Ondo-ondo pasatu urtebetetze egunean. Muxu handi bana etxekoen eta batez ere, Izarren, Ekaitzen eta Ametsen partetik. Aupa



Reala!
ARETXABALETA
**Egoitz eta Izadi Zabala Cabero**
Abenduaren 24an, 2urte. Oso ondo pasatu zuren egunean eta muxu asko Haizearen, amatxoren eta aitatxoren partetik!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.
**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
**Ordezkaritzan**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 15:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Oñati.** Etxebizitza salgai erdigunean. 68 metro koadro. Bi logela, komuna, sukaldea eta egongela. Guztiz hornitua. 190.000 euro. 659 72 06 64

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Erdigunean eraikuntza berriko etxebizitza ematen da errentan. Bi logela. Berokuntza indibiduala. Igogailua eta trastelekua. Bizitzera sartzeko prest. 653 70 84 09

**Bergara.** Erdigunean bi logelako etxebizitza berria ematen da errentan. 667 31 37 45

**Eskoriatza.** Logela bateko etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Jantzita. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653 70 37 51

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Erdigunean hiru logelako etxebizitza hartuko errentan, prezio onean. Trasteleku edo garajearekin bada hobe, eta berdin zait altzari edo etxetresnarik gabe egotea. Etorkizunean erosteko aukerarik balego, hobe. 675 70 24 17

**Oñati.** Neska eta mutil euskaldun, langile eta arduratsuak etxebizitza bat hartuko lukete errentan, 500 euro inguruan. Harremanetarako deitu telefono honetara: 653 72 87 50

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Pertsona bat behar da erdigunean dagoen etxebizitza osatzeko. Deitu ezazue telefono honetara: 678 82 69 77

**Oñati.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat beharko genukeen bi langile gara. Interesaturik egonez gero deitu mesedez arratsaldeko 18:00etatik aurrera. 653 74 87 51

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**BERGARA**
Tabernan lan egiteko pertsona bat behar dugu.
669 53 97 03

**BERGARA**
Sukalde laguntzailea behar da.
695 78 85 55

**Antzuola.** Pertsona euskalduna behar da bi haur zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652 73 12 56

**Au-pair Dublinen.** Gure haurrak zainduko dituen au-pair baten bila gabiltza. Familia euskal-irlandarra, Dublinen bizitzen. Urtarril erdi-bukaeran hasteko. Euskaraz hitz egitea derrigorrezkoa. Interesatua egonez gero, bidali email bat igorgon@gmail.com -era eta lan baldintzak/eskaintza bidaliko dizkizugu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 00353868263465

**Bergara.** Etxerako pertsona bat behar dugu sei hilabeteko umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Urtarriletik aurrera lan egiteko, 8:00etatik 14:30ak arte. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 05 99 37

**Bergara.** Neska bat behar dugu asteburuetan, etxean bertan bizi izanda, emakume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 669 53 97 03

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Esperientzia handiko mutila asteburuetan nagusiak zaintzeko gertu. Erreferentzia onak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 662 43 08 54

**Arrasate.** Garbiketak edota plantxa lanak egingo nituzke orduka. Baita sukalde laguntzaile ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 23 46 19

**Bergara.** 23 urteko neska euskalduna, esperientziarekin, umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 77 40 26 edo 943 76 52 79

**Bergara.** Eskarmentua eta informeak dauzkan emakumea etxeko lanak egin eta ume zein nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 34 97 88

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu, etxeetan gaixoak zaintzeko edo ospitalean. Geriatriako tituluduna. Autoa daukat. Eskarmentu handia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 600 00 51 60

**Debagoiena.** 56 urteko emakumea lanerako gertu. Eskarmentua dut umeak zaintzen, etxeko lanak egiten, garbitasunean eta baita tailerrean ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

**Debagoiena.** Emakumea lan bila. Pazientzia handikoa eta adeitsua naiz. Etxeko lanak egiten, garbiketan edo nagusi zein umeak zaintzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 633 74 49 54

**Debagoiena.** Mutil arduratsua gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita garbiketa lanak egiteko ere. Lanean berehala hasteko moduan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 622 21 59 49

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Garbiketan, zerbitzari eta banatzaile moduan lan egin izan dut. Berehala hasteko gertu nengoke. Gidabaimena daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 646 72 08 24

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zainduko nituzke eta baita garbitasun lanak egin ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 87 22 46

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zaintzen eta garbiketan lan egiteko gertu. Esperientziaduna eta erreferentzia onekin. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 686 44 70 38 edo 606 64 16 09

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen eta garbiketan eskarmentua duen emakume arduratsua naiz. Gertu nago etxean bertan bizi izateko edo orduka zein egun osoz lan egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 662 06 18 09

**Debagoiena.** Neska arduratsu eta esperientziaduna lanerako gertu. Umeak zaindu, orduka garbiketak egin edota nagusiak zaindu eta paseoan ateratzeko laguntzen. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu dago. Geriatria ikasketak dauzkat. Nagusiak zaindu edota garbitasun lanak egingo nituzke. Egun osoz, erdiz zein orduka. Interesatuok deitu ezazue zenbaki honetara: 656 85 66 02

**Debagoiena.** Neska arduratsua, oinarrizko geriatria eta sukaldaritza ikasketaduna, nagusiak zaindu, gauak ospitalean egin edo denetariko garbiketak egiteko gertu. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izanda. 615 06 28 04

